

“Kirikiño” kazetaria, I. Mundu-Gerraren kontalari

(The journalist “Kirikiño”, narrator of I World War)

Altzibar Aretxabaleta, Xabier

Euskal Herriko Unibertsitatea. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fak.

644 postakutxa.

48089 Bilbo

BIBLID [1137-4454 (1997), 14; 9-33]

Artikulu luze honek Kirikiñoaren kazetaritza osoaren alderdi garrantzitsu batzuk ikertzea du helburu: ideiak, gaiak, artikulu motak, ipuinak kazetalan gisa, kazetari bezala irakurtzeko eta idazteko zaletasuna pizten eginiko lana, euskara eredu eta izandako arrakastaren giltzarriak. Ikerketa honek Kirikiño kazetari politiko abertzalea agertarazten du, ideologia eta euskara lotzen dituena, kazetari eta idazle bezala jokaten duena, berriemallei nola idatz irakasten diena, euskara garbiaren gainetik euskara atsegingarria bilatzen duena eta kontalari umoretsua. Alderdi hauek I. mundu gerran nola mamitzen diren erakusten da, artikulu hau “Gerra irudiak” izeneko ziklo baterako idatzi baitzen.

Giltz -Hitzak: Kirikiño. Kazetaritza. I. Mundu Gerratea.

Este largo artículo tiene como objeto abrir la investigación sobre algunos aspectos importantes del periodismo de Kirikiño: sus ideas, temas, columnas, géneros y artículos, sus cuentos como parte de su obra periodística, su trabajo como impulsor de lectores y escritores en euskara, tipo de lengua y claves del éxito que obtuvo. Esta investigación muestra a Kirikiño como periodista político abertzale que une estrechamente la lengua y la ideología, que escribe como periodista y como escritor, que enseña a corresponsales y colaboradores cómo escribir para el periódico, que busca más un euskara ameno que purista y que es un gran contador lleno de humor. Las noticias y artículos sobre la I. guerra mundial (este artículo se escribió para un ciclo titulado “Imágenes de la guerra”) ilustran bien estos aspectos de Kirikiño.

Palabras Clave: Kirikiño. Periodismo. 1ª Guerra Mundial.

Cet long article à pour tache ouvrir l'investigation sur quelques aspects importants du journalisme de Kirikiño: ses idées, articles, contes comme elements de son journalism, son travail d'impulseur de lecteurs et écrivants en euskara, modèle de langue et clefs du succès qu'il obtint. Comme résultat de cette recherche nous connaissons meilleur la figure de Kirikiño comme journaliste politique eta nationaliste, qui établit une liaison entre langue et ideologie, qui écrit comme journaliste et écrivain, qui enseigne a corresponsales et collaborateurs comme écrire pour la presse, cherche un basque amène plutôt que puriste et est un gran narrateur plein d'humour. Les nouvelles et articles de Kirikiño sur la Grande Guerre (l'article fue écrit pour un cicle intitulé “Images de guerre”) illustren ces aspects de l'auteur.

Mots Clés: Kirikiño. Journalisme. Première Guerre Mondiale.

I. mundu gerratea nolako izan zen eta Hegoaldean zer pentsarazten zuen ezagutzeko Kirikiño lekuko interesgarria da. Idazle honek bere ipuinei esker euskal literaturaren orrietan leku finkoa irabazi du. Baina ez zen izan ipuingilea huts-hutsik. Adibidez, hainbat eta hainbat kazetalan argitara zituen I. mundu gerraz, nahiz hauek ez diren gudalekuetan idatzirik kronikak, *Eskualduna*-ko J. Etxepare, J. Saint-Pierre eta J. Elissalderenak bezalakoak, Kirikiñok bere bulegoan idatziak baizik, egunkarira iristen ziren berriez baliatuz. Horietarik gehienak bildu ditu Xabier Preak liburu batean: *Guda Nagusia. 1914-1918*, Labayru Ikastegia, 1989¹.

Kirikiño agian Hegoaldeko lehen euskal kazetaria izan zen ogibidez, eta euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztu zuen, baita kazeta idazleak sortu ere. Kirikiñoren I. mundu gerrateko kazetalan hauek garbi erakusten dute haren pentsaera eta jokaera politikoa abertzalea, zernolako albisteak, azalpenak eta kontakizunak idazten zituen, nola garbizaletasunaren aurretik euskara ulerterreza eta atsegingarria bilatzen zuen, eta nola irakurleen arreta erakartzeko kontakizunez eta umoreaz baliatzen zekien.

Eskerrak eman nahi eta behar dizkiot Xabier Preaki, Kirikiñoren idazlanak –berak zehatz-zehatz idazmakinaz jota Derioko Bibliotekan utziak– irakurtzeko eman dizkidan erreztasunengatik. Eta Bibliotekako zuzendari den Ander Manterolari, batez ere Kirikiñoren garaiko euskal irakurlegoaz eta bere aitaren lekukotasunaz emaniko datu eta oharrengatik. Baita Bilboko Sociedad Bilbaína elkarteke bibliotekariari, *Euzkadi* egunerokoa ikuskatzen uzteagatik.

Hona hemen artikulua honetan erabiliko ditudan laburdurak, ordena alfabetikoan: *Bizk.:* *Bizkaitarra* asterokoa. –EAE: “Euzko Abendaren Elez” saila.– *Edo geuk...: Edo geuk edo inik ez Euskerearen alde*, ik. Bibliogr. –Eg.: “Egunekua” saila.– *Euzk.:* Euzkadi egunerokoa. –GN: *Guda Nagusia. 1914-1918*, ik. Bibliogr.

KAZETARI ETA IDAZLE

Ebaristo Bustintza (1866-1829) Mañarin (Durango ondoan) jaio eta hil zen. 12 urtetik aurrera bere gaztaroan Euskal Herritik kanpoan bizi eta ikasi zuen, Almansan (Albazete) eta Madrilen, Unibertsitate honetako Zientzia Fakultatean ikasi eta Zientzia Fisiko-Matematikokoan lizentziatuz. Almansa eta Sigüenza (Guadalajara) irakasle izan ondoren, euskal pizkundegiroak erakarrita, Euskal Herrira itzuli zen, Azkuek deitu eta ekarri baitzuen Bilbora euskara irakasten-eta berari laguntzeko. Bustintza euskararen irakasle eta kazetaria izan zen aldi berean, eta irakasletzak badu zerikusirik haren kazetaritza moduarekin. Lehenik Azkueren orde zehar izan zuen Bizkaiko Aldundiaren katedran, gero beregain, guztira 24 urtez. Irakasle ona bide zen, bigarren ikasturtean ikasleak hitzegiten ateratzen zituen (ik. adib. *Bizk.*, 1909-VI-12).

Azkue izan zen, beraz, Bustinzaren lehen maisu eta gidari. Azkueren *Euskalzaile* aldizkarian agertzen dira haren lehen kazetalanak, “Mañari” gezur-izenez. Ondoren *Ibaizabal*, bizkaiera eta gipuzkerazko aldizkariaren artezkari izango da (1902-3), “Bla”, “Boldro”, “Zumelaga” izengoitiz izenpetuz. Azkuek laguntzaile izan zuen ere bere hiztegi hirukoitzean².

1. Bilduma ona, nahiz, lan guztiekin hobea zatekeen, nire iritziz. Sailak, izenburuak eta artikuluko motak (“Izparrak”, “Gogaketak”) ez daude zehatz jarrita. Bestalde, prestatzaileari ahaztu egiten zaio Kirikiñok kazetalanon non argitara zituen esatea, konturatu barik, seguru asko.

2. Azkue eta Kirikiñoren arteko harremanez, ik. Arana Martija, J. A., “Euskal Katedraren lehiaketa eta eragina”, *Euskera*, XXXIII, 376.

Baina laster Arana-Goiri hartuko du bere maisutzat, politika nahiz euskara kontuetan. 1909an *Bizkaitarra* Alderdi Jeltzalearen asterokoan idazten hasiko da kolaboratzaile gisa, enpresa batean kontulari lanak eginez batera. Urte horretan bere iloba Basili Bustintza Ozerin-ekin, Errose Bustintza "Mañariko"ren ahizparekin ezkonduko da. 1913an *Bizkaitarra* desagertu eta *Euzkadi* egunerokoan hasiko da idazten kazetari finko gisa, kontularitza lanei utzita, 1928an Mañarira erretiratu arte. *Euzkadi*-n 16 urtez idatziko du egunero (igande, oporraldi eta 1922ko grebaldian izan ezik).

"Kirikiño" (triku, sagarroi), Bustintzak *Euzkadin* ospetsu egin zuen gezur-izenak, 'lotsatia' esan nahi du (ez 'haserrekorra', gaztelera *erizo* hitzak bezala), eta ezagutu zutenek itxuraz serioa eta latza, baina barrutik gardena, umea bezalakoa zela diote. Eta bestalde, lagunkina eta berriketazale atsegingarria, hizketagai bakoitzean pasaizu bat kontaktzen zekiena. Gizontasun, apaltasun, eta, arerio politikoek ere airtortzen dutenez, leialtasun handikoa; adibidez, katedran irakaskintza eta proselitismoa nahasten ez zituena. Bere pentsaerari beti zintzo jarraitu bide zion, politika eta negozioak elkarrengandik bereizi gabe, aberastasunak eta txaloak mespretxatuz. Areago, diruaren ardura handirik ez bide zuen: *Abarrak* milaka saldu arren, egileak ez omen zuen txakur txikirik jaso; inoiz ere ez zuen soldatarik eskatu, diotenez, ematen ziotenarekin konformatzen zen-eta. Behargin amorratua, egunero arratsaldeko 3etatik 6etara egunkarian lanean, ondoren euskara irakatsi, eta berriro gauean goizaldeko orduak arte lanean aritzen zena. Zehatza omen zen bere lanean, irartokerrak xehe-xehe zuzentzen zituena. Eta kristau ona, elizakoa. Haren ehortzetara Gipuzkoa eta Bizkaitik jende asko etorri zen (ik. "Kizkitza", "Arrugain" eta abarren artikulua *Euzkadin*, edo Bilboko izparringietakoak hura hil ondoan).

Bere idazlan guztiak izparringi eta aldizkarietan argitara zituen, batez ere *Bizkaitarra* eta *Euzkadi* kazeta jeltzaleetan. Egunkari honetan egunero idatzi zuen 16 urtez, urte askotan batz bestea hiru zerrenda beteaz, eta zerrendok luzeak ziren goitik behera, egunerokoa tamainu handikoa baitzen. Milaka idazlan beraz. X. Pereak guztiak bildu ditu urteka 16 tomo loditan, baita *Bizkaitarra* eta gainerako aldizkarietakoak: *Euskalzaile* (1899: 8 idazlan, ipuin eta izkirimiriaren artean), *Ibaizabal* (1902-1903: 103 inguru idazlan); *Euskal-erria* (olerki bat); *Euzkadi* kultur aldizkaria (1906-1914: 9 lan), *Euzko-Deya* (1916-1919: 27 guttinez, batez ere "Barriketak" sailean); *Hermes* (1919), *Gure Herria* Iparraldekoa (1924: lan bat); *Euzkerea* (1929, 1930: 3 idazlan eta olerki bat), *Euskal-Esnalea*....

Honek guztiak Kirikiño euskal idazle oparoenetariko bat bihurtzen du. Hala ere, ez da oso ongi ezagutua, eta, ipuinez gain beste hiru bilduma argitaratu diren arren, beharrezkoa da haren idazlan interesgarrienak argitaratzen jarraitzea³. Kirikiño hil ondoan Orixek berak ere beharrezkotzat jotzen zuen haren kazetalanak argitaratzea (*Euzk.*, 1929-II-9). Kirikiñoaren idazlanek azterketa zehatza merezi dute, gainera, kazetaritza edo literatura aldetik (kontakizunak, izkirimiriak, antzerki, olerki, bertso e.a.), balioa dutenek bederen.

Kirikiñoek olerkiak eta bertsoak ere ondu baitzuten, horietako batzuk sarituak izan zirenak. Eta antzerkilar batzuk moldatu edo itzuli. "Anton Berakatz" bakarrizketa farregaria *Euzkadi* kultur aldizkarian argitaratua izan zen 1914an eta Bilboko Campos Elíseos-en Garmendia ta

3. Labayru Ikastegiak, X. Pereak prestatuta eta hitzaurre interesgarriekin, Kirikiñoaren kazetalanekin 3 liburu argitaratu ditu (ik. Bibl.). Lan txalogarria eta jarraitzea merezi duena, gaika edo bestela, gaiok bata bestearekin lotuta eta elkarren osagarri baitira Kirikiñoaren kasuan, adib. politika eta euskara. Baina Labayru Ikastegiaren ediziootan Kirikiñoaren idazkera aldatuta dator, egungo ortografian jantzita, berariaz eta ohartaraziz, noski. Kirikiñoek jakinaren gainean hautatu zuen idazkera aldatzea, euskararen historiako joera oso baten idazkeramodua, eztabaidagarria iruditzen zait, edizio gaurkotuen premia gorabehera.

Gastañagak antzetzua. Antzezleak “barre algarra andijak eragin ebazan Anton Berakatz-en azerikerijekaz” (*Euzk.*, 1914-VIII-1). *Lelo*, Alfredo Etxaberen hiru ekitaldiko antzertia bizkaierara itzuli zuen, baita beste euskalki batzuetako komedia batzuk ere: A. Barriolaren *Meza berriya*, Bilboko Euzkeltzale Bazkunak argitaratua, eta Jose Elizondoren *Txomin Arraio* (Bilbao, 1912).

Kazetalan eta ipuin liburuez gain, hitzaldiak eman zituen (adib. “Aberrija azkatuteko, goguak azkatu”, ik. *Bizk.*, 1911-I-21; II-4, 11, 25). Aipagarria da “Gastela-mutilak” izenburupeko ospetsua, “Euskal Esnalea”k eramanda Donostian gipuzkeraz emana, testua lehenik *Euzkadin* (1928-XII-7, 9, 11, 13, 15), gero *Bigarren Abarrak*-en agertu zelarik. “Euzkel-Iztija” edo gramatika bat bizkaieratu zuen, Ollendorf deritzan metodoa (*Bizk.*, 1910-XII-10). Euzkeltzale Bazkunak argitaratutako kanta-liburuetako kopia eta abesti batzuk ere euskara “garbi”an Kirikiñok jarrita argitaratu ziren: Sta Agedakoak (“Aintzalduta daigun Agate Deuna”), Ama Birjina Lurdeskoaren omenez eta hara erromes zihozazentzat prestatuak (“Agur Josuren Ama / Birkiña mattea”, *Bizk.* 1910-VII-9). Abesti letra batzuen egile ere bada (*Bizk.*, 1912-V-25), adibidez “Ene aberri polit ederra” edo “Jagi, jagi” (I. Etxebarria, *Euskal Hitz*, Eusko Jaurilaritza, 1992).

Ipuinlari gisa ospetsua eta nahikoa ezaguna da. *Abarrak* argitaratu zuen (Bilbo, 1918). Egilea bere azken urteetan beste ipuin sail bat prestatzen ari zen argitaratzeko eta hilda gero *Bigarren Abarrak* agertu zen (Zornotza, Jaungoiko Zale, 1930), E. Aranzadi “Kizkitza”ren hitzaurrearekin. Ipuinlari gisa “Kirikiñok” jarraitzaileak izan ditu, batez ere bizkaieraz. Lehenik bere iloba Errose Bustintza “Mañariko” (1899-1953), aldizkarietan ez ezik *Euzkadi* eta *Eguna* egunerokoetan ere hainbat lan egin zuena, albisteak eta ipuinak bidaliz. Hauek *Ipuinak* delako liburuan argitaratu dira oraintsu (Gero, 1990, J. Kerexetak prestatua). “Kirikiño”ren jarraitzailetzat jotzen da F. Bilbao ere: *Ipuin-barreka* (1959).

Abarrak liburuko ipuin gehienak “jazorikoak” edo “ipuin antzeko edestijak” dira (berak hola deitzen zituen), izparringietan agertu arren egunerokotasunetik kanpo ere balio beregaina dutenak. Horregatik argitara zituen, eta honek Kirikiñoren asmo literarioa erakusten du. Estilo aldetik, kontakizunok baliabide literarioak erabiltzen dituzte. Gobernadorearen zentsurak ere bide ematen omen zion ipuinak idazteko, berak dioenez (*Euzk.*, 1919-VII-4)⁴. Dena dela, kontakizunotan Kirikiñok beti irakurleen atsegina bilatzen du. Bestalde, hizkuntza aldetik ere interesgarria eta frututsua izan daiteke kazeta eta liburuetako testuak konparatzea. Noski, *Abarrak* eta *Bigarren Abarrak* liburuetan ez datoz egilearen ipuin eta barregarrikeria guztiak, gutxi batzuk baizik.

JEL, EUSKERA ETA “EUKO-GOGOA”REN ALDE, GOGOR

Ibaizabalen zuzendari eta *Bizkaitarran* kolaboratzaile izan ondoren, hau *Gipuzkoarra*-rekin batera desagertu eta alderdiak *Euzkadi* egunerokoa sortzean 1913an, Kirikiño, kazetari finko egina, euskarazko sail edo atalaz arduratuko da, 1928rarte egunero-egunero idatziz bere sailetan. Hegoaldeko lehen euskal kazetaria da, seguraski, lanbidez.

Euzkadi egunerokoa (ez bedi nahas *Euzkadi*, *Revista trimestral de ciencias, bellas artes y letras* delakoarekin, hau 1901an S. Aranak sortutako lehen kultur aldizkari abertzalea, Bilbon ateratzen zena), EAJ-PNVren agerkari ofiziala zen eta Bilbon kaleratzen zen: hasieran

4. “Zer idatziko ete-dogu ba? Politikiaz ezin dozu gauza andirik esan, beintzat gauza zuzenik, edo areriyuen aurka. Ipuinak edo asmau biarko doguz, zelan alan denporia emoteko” (*Euzk.*, 1919-VII-4). Egia ote? Kontakizun batzuek ba ote dute esannahi bereziren bat?

4 orri, 6 zerrenda; geroxeago txikitu egin zen baina orrialdeak gehituz (6 orri). Jabetza beraz EBBrena, eta zuzendaria edo, behintzat, egunerokoaren arima Engrazio Aranzadi "Kizkitza" zen. Garai hartan Alderdi Jeltzalea haziz eta antolatuz zihoan, joera ematua nagusi zela ("Euskalerrikoak", hots, R. Sota, "Kizkitza", Eleizalde, I. Aranzadi...). Gizarte-maila desberdinetako jendea hurbildu zitzaion alderdiari: langileak –SOV-ELA 1911an sortu zen– nahiz burgesak –mundu gerrarekin aberastuko zirenak–. 1917-1919 bitartean alderdiak aurrerakada handia egin zuen: 1917an Bizkaiko Aldundirako hauteskundeetan beste guztiak garaitu eta 1918an autonomiaren aldeko kanpainari ekin zion. Bitartean, *Euzkadi* Bilboko eta Euskal Herriko egunkari garrantzitsuenetariko bat egin zen, 10.000tik gora ale ateratzen zituela. Hauek dira agian Kirikiñoaren kazetaritzako urte helduenak. 1919an gobernua krisialdian sartu zen, 1921ean alderdia zatitu eta 1923an diktadura etorri zen.

Kirikiño *Euzkadi* egunkariaren jokabide ofizialarekin bat eginda agertzen da beti, alderdiaren une larrienetan ere, esaterako "Aberri"koekin tirabirak izan zituztenean: 1915ean edo 1921ean, banandu zirenean, *Euzkadi* "Comunión Nacionalista" delakoaren eskutan geldituz. Zatiketa mingarria, aspaldiko lagun gazteagoen ahotik eraso pertsonal garrantzak entzun beharko zituen-eta (Euzkaltzale Bazkuna, *Euzko-Deya*, Jemein'dar K. "Jadarka", J. Altuna "Amilgain"...). Geroago, hala ere, urak bere bidera itzuli ziren eta adiskideak beti adiskide.

Kirikiño Alderdi Jeltzalekoa zen eta 1917-1918an Bizkai Buru Batzarrekoa. Bere alderdiaren mitin batzuetan hizlari izan zen, adib. 1918an Mungiako gudaka zela-ta Bilbon egindako batean, txalokatua izan zelarik⁵. Cambó politikari katalandarra aurkeztu zuen Bilboko Campos Eliseos-en.

Euskaltzale eta *Ibaizabalen* ondoren, Hegoaldean ez zegokeen euskarazko izparringi ez aldizkaririk. Orduan Kirikiño eta beste batzuek (bere ikasle "Amilgain", "Jadarka" e.a.), *Bizkaitarran* euskara apurka-apurka sartzten hasi ziren, astero segurtatzen eta gero eta gehiago finkatzen, lehen orrialderaino eramanez. Esperientzia onuragarria, Kirikiñoaren iritziz, euskarazaletasunak aurrera egin zuelako (*Bizk.*, 1913-I-25). Bestenaz, Bilboko egunkarietan euskararik ez zen agertzen, *La Gaceta*n izan ezik (*Bizk.*, 1910-X-15), Paulo Zamarripa "Zarrontzale"k idazten baitzuen hor. Nolanahi ere, Kirikiñori esker *Euzkadi*-k, *Bizkaitarraren* lorpenak bermatu eta urrats handi bat egin zuen: euskarari toki finkoa eta ona gordeko dio, lehen orrialdean eta ezkerreko zerrendan. Laster, 1915ean, Kirikiñoek beste sail bat irabaziko du eta batzuek beste 3 zerrenda argitaratuko dira euskaraz (24tik 3). Toki gutxitxo, dirudienez, egunkari abertzale batentzat. Zergatik ote? Eguneroko hori ia hutsik Bilboko eta "bilbotarra" zelako? Baina euskal irakurlerik ba ote zuen? Ghetto bat ote zen euskara *Euzkadin*? Egia al da *El Día* donostiarr egunkariak atera zuela euskara egunkarietako ghettoetatik, Mitxelena dioen bezala⁶. Bide batez esateko, *Bizkaitarrako* kazetarien artean euskara irakasteko esko-

5. Eta berak: "Auxe da niri atsegín andija damostana, emen Bilbao'n, beti uartu dot euzkelduna, batez be biargin antzekua eurrez etorten dala" (*Euzk.*, 1918-IV-29).

6. "Más que del mero predominio cuantitativo de una lengua sobre otra, se trata de la distribución de papeles entre ellas: la lengua local tiene una función subordinada y complementaria, manifiesta ya en el espacio que se le concede. La "página vasca" (*Euskal orria*, etc.) es una sección aparte, situada a menudo en página interior. Constituye, en otras palabras, una especie de ghetto en que estaban encerradas materias menos importantes, marginales, escritas por autores de menor consideración. / Debíó de ser *El Día* de San Sebastián (1930-1936) el primero que, por influencia de José de Ariztimuño, rompió con esta costumbre: bastantes artículos en lengua vasca aparecieron fuera de la judería, hasta en primera página. Eran, con todo, artículos de tema cultural en relación con la atención preferente que *El Día* concedía a la literatura en lengua vasca y en particular a la poesía, como modalidad más cultivada por entonces. Las noticias, como habrá pensado alguno, venían exclusivamente en castellano, a no ser que fueran estrictamente locales.", Mitxelena, L., "Las lenguas españolas y el periodismo escrito", *Lenguaje en periodismo escrito*, Fundación March, 1977.

lak antolatu ziren, Kirikiño bera zela irakasle (ik. "Cátedras de Euzkera", *Bizk.* 1910-IX-24), nahiz ez dakigun emaitzak zer-nolakoak izan ziren.

Orokorki, hala ere, abertzaletasunak euskara bultzatu zuen izparringietan eta izparringien bidez, bere ideologia zabaltzeko tresna garrantzitsua zelako. Orobat abertzaletasuna euskararen aldeko indar politiko eta sozial handia zen, nahiz hizkuntza zabaltzea ez ezik "garbitzea" ere bilatzen zuen. Hori adierazten du Euzkeltzale-Bazkunaren sorrerak (1910)⁷. Euzkeltzale-Bazkuna-k *Euzko-Deya* sortu zuen, euskara hutsezko izparringi hamabosterokoa (elizgizonena izan ez zen lehena). Eta *Euzko-Deyatik* euskal egunerokoaren asmoa agertu zen, izparringi hori bera egunerokorantz pausu bat bezala ikusten zuela Kirikiñok: "iñoz eguneroko ederra egingo da euzkeraz" (*Euzk.*, 1915-II-17). Hala ere, garai hartan egunerokoa ateratzeko baldintza egokirik ez zegoen, haren iritiz ("Izkillu ikaragarria", *Euzk.* 1917-IV-25, ik. *Edo geuk...*167-168).

Ikusten denez, Kirikiñok Bilboko abertzale gazteekin harreman nahiko estuak izan zituen (Bidebarrieta kaleko 14. etxeko auzokide ziren, hor zeuden izparringi abertzaleak, Euzkeltzale Bazkuna, Euzko Gastedi e.a.). Euskararen aldeko kanpainak egin zituzten, Kirikiñoren sailetan oihartzuna izaten zutenak: orratzak ikur gisa paparrean erabiltzeko (1915); "Euzkel Laguntza" (1916) "euzkereari indarra emongo dautsoen bideak edegi ta zabaltzeko", adibidez umeak euskal izenez bateatzeko, ikastolak eta euskarazko eskolak sortzeko, iragarkiak euskaldunen dendetan jarri eta erdaraz saltzen zuten dendarien dendak husteko (*Euzk.*, Eg. 1916-VIII-27) e.a. Kirikiñok ekintza hauen lekukotasuna dakar izparringiko bere sailetan. Baina abertzaletasun honek, aldi berean, euskara "garbia" nahi zuen. Eta giro horrek bere eragina izan behar zuen Kirikiñogan. Abertzale horien arteko franko haren ikasleak, irakurleak, eta hark adorez irakatsita ateratako idazleak ziren. 1917-1918an garaipen politikoen ondorioz euskararentzat egin hobeak etorriko zirelako ustea zuen, diktadurak zapuztuko zuena. *Edo geuk edo iñok ez, Euskerearen alde* liburuan gai honen inguruko Kirikiñoren idazlan mordoxka batzen da.

Kirikiñok bere kazetalanetan JEL, euskara eta euzkotasunaren alde ekiten du beti: pentsakera honek iradoki eta sortarazi zuen haren obra guztia. Kirikiñorentzat abertzalea izateak jeltzalea izatea eskatzen du (Jainkoa eta Lagi Zarraren aldekoa, azken honek legeak egiteak eskubidea adierazten duela). Eta abertzaletasun edo jeltzaleatasunak euskararen erabilera inplikatzeko, euskara izanik atzerritarrengandik garbien bereizten gaituena. Jeltzaleatasuna eta euskara beraz elkarrengandik bereizi ezinezkoak dira, haren iritiz. Ez du onartzen abertzale izan daitekeela benetako euskarazale izan gabe, hau da, euskara ikasi, hitz egin "mordollo bada be" edo irakurri gabe⁸. Euskara maite ez duen abertzalerik ez du onartzen, euskara gabeko Euzkadi askaturik ez du nahi: "Zetarako azkatasuna jarrano gorri bat! erdeldunak ixa-

7. Euzkeltzale Bazkuna 1910eko irailan sortu zen, euskararen alde lan egiteko asmoz. Ekintza plangintzan bi helburu finkatu zituzten: bazkideen euskara hobetzea eta euskara garbitzea eta zabaltzea, euskalari abertzaleen laguntzaz (*Bizk.*, 1910-IX-24).

8. "Euzkerea da euzkotarren gauzarik euzkotarrena, berau da ba garbi ta zeatz bananduten gaituana atzerritar guztiakandik" (*Euzk.*, 1913-II-1). "Euzkereaganako maitetasuna sortzen da jakitetik geure odolari yagokon ele edo berbetia dala, guk geure Aberrija daukogula ta geure Aberri orretako ele edo berbetia dala, ta ezpañerea ezjala geure odolari yagokona" (*Euzk.*, 1914-VIII-17). "Euzkerea jakin eta erabilten eztaun abertzalia...jpurrut!" (*Euzk.*, Eg. 1914-VII-25). "Euzkeraz, mordollo bada-be" egin (*Euzk.*, 1923-II-16). Euskaraz irakurtzen ez dutenei buruz ari dela: "Zelako abertzaliak dira? Gixonak, zeubei dagokixubena (toketan yatzubena) irakurten ezpadozube euzkeraz, ¿zer irakurri zeinke? Gero abertzaliak dirala...¡bai, odolozte uztel bat! Zarrontzale geyago dok; onek eguneroko irakurten yok Euzkadi'ko euzkerea, ta karlista *tremebundoa* dan arren abertzale batzuk baño geyago egiten dau, ta geyago maite dogu, berak eztau ziñestuko baña" (*Euzk.*, 1914-VII-20).

tekotan elez ta ekanduz?" (*Euzk.*, 1915-IX-11). Bilbo aldeko abertzale askoren jokaerak kezkatzen zuen. Baina Alderdi Jeltzaleak bere kideei ez zien, ordea, euskara ikasteko eta hitz egiteko agintzen eta, beraz, Kirikiño honetan ere bereizi egin zen bere alderdiko jarrera ofizialetik.

Jeltzale izateak "euzkotasuna" edo "euzko-gogoa" ere esan nahi du Kirikiñoarentzat, batez ere "euzko-ekanduak edo ohitura onak jagotea. Adibidez, Kirikiñok euskal dantza garbien alde eta dantza-nahaste zaleen aurka egiten du, baita zezenketen aurka, arrotza delako, odol-ixurketa dakarrelako e.a.⁹. Baita "euzko-jakintzak" eta "euzko-ertajak" bultzatzea ere (*Euzk.*, 1917-XI-11; 1918-IV-29).

Kirikiño kazetari engaiatua da eta gainera JEL eta euskararen alde jarrera borrokalaria eta erabatekoa hartzen du. Gogor ekiten du arerio politikoen aurka: alde batetik "piperpote" edo gobernuaren aldeko, mauratar eta jauntxoek kontra; bestetik karlatar edo jaimatarren aurka. Sozialistak ere ez ditu maite, "oporketa orokorra" (greba) eta matxinadak antolatzen dituztelako (*Euzk.*, 1916-XII-17). "Kaiserkeri ta itxulaskeri gustijen" aurkakoa da, "lana, bakia, ta era ona, biar-biarrekuak errijaren bixitzarako" jotzen ditu (*Euzk.*, 1918-XI-10)¹⁰. Euzko-Langilleen Alkartasuna begiko du. Politika kontuetan ematua da, bere alderdia bezala.

Batez ere euskararen etsaien, bereziki euskaldunak izanik euskararen arerio direnena kontra ari da: karlisten aurka, erdalzaleak direlako; handiki nahiz handiki-usaineko euskaldun erdarazaleen aurka, erdaraz oso txarto egin arren ("astokrazia"); abade erdera-zabaltzaile nahiz umeak euskal izenez bateztzera ukatzen direnena aurka; euskara kultura eta pentsamendurako gai ez dela eta euskaldunak basatitzat jotzen dituztenena aurka, hots, Unamuno eta liberalak...¹¹. Bere alderdiko abertzale batzuk ere aipatuena artekoak baitziren, haien jokaera da gehien sutan jartzen duena.

Eta beti etsaien aurka, batzuetan serio, ahoan bilorik gabe, gogor, are haginkadaka, eta beste batzuetan destainaz, farregarri erabiliz, ondorioz batzuetan eztabaida mingarriak sortzen zirela. Eta Kirikiño ez zen inori amor ematekoa, nahiz aurkarien egite onak aintzat hartzen bazekien. Bestenaz, bere iritzietan batzuetan ertzerakoia, beste batzuetan alde bakarrekoa zen edo ez, X. Pereak dioenez (hitzaurre)...Alabaina, halakoa zela garai hartako kazetaritza, besterik ez dugu esango.

KIRIKIÑOEN KAZETARITZA: SAILAK, GAIK, ARTIKULU MOTAK

Kirikiñoen kazetaritza, bere bilakaera eta osotasunean aztertzea komeniko litzateke. *Euzkadin* mamitzen da bereziki eta 1913-1923 bitarteko hamarkadan, Primo de Riveraren diktadura aurreko urteetan. Hala ere, jada *Bizkaitarran* finkatua zuen bere kazetaritza modua

9. "Astokeri andija da zezen-jai ori. Gebendu ezin lei España'n, ba erreboluziño bat urtengo litzake. Egin biar leukieta da adarretan bolak ipintia agindu, orrenbeste odol ixuri eztaiten" (*Euzk.*, 1914-VIII-10).

10. "Bakixue España Laterri gustiz makala dala, ta matxiñadak urrian sortuko dira, ta jazoko balitz eurok dana itxulastutia, guk orduan danok ondo batuta indarra egin biar dogu, ta emen, gure aberri onetan, jente bakezaliak, ikusirik guria lako indar egoki bat, geugana batuko litzakez arin, eta gaizkatu al ixango geunke gure erri au, berton lana, bakia, ta era ona, biar-biarrekuak errijaren bixitzarako, alan jagonda" (*Euzk.*, 1918-XI-10).

11. "Orain arte, batzuk euki gaitue alako basatitzat, jandedan eta dantzatu eta mendiz-mendi didarka ta irrintzaka ibiltetik aldendu ezkerro geyagorako gauza ezkiñialakuan, baña onetariko liburuek azkeratsiko yake guk didar ta irrintza bai-dakigula egiten, ez bakarrik basuan, baita liburuak idazten be // Onantxe alde guztijetan ekin biar dautsogu arerijuari, iñoz baketan itxi barik, azkenez geure menbian ipiñi arte geure aberri onetan dagon gustija" (*Euzk.* 1918-V-29). Aipatu liburuak urte hartan argitaraturiko *La nación vasca*, E. Aranzadirena; *Landibar* Eleizalderena eta beste batzuk dira.

jenero, idazkera eta are gai-multzo batzuen aldetik. *Bizkaitarra* Kirikiñorentzat *Euzkadiren* aurre-saioa izan zen: esate baterako, euskarak asterokoan toki finkoa izaten ahalegindu zen, irakurleen atsegina bilatzen, izpar laburrak lantzen e.a...Dena dela, *Euzkadin* egunero-egunero 3 zerrenda betetzea (gutxi gora-behera) bestelako kontua zen, erronka gaitza, egunkarian bera bakarrik egon eta “azkenengo zotza”, berak zioenez, izanik. Irakurtzeko ohiturarik ez zutenentzat idatzi behar, gaiak eta berriemaileak aurkitu behar, ia edozertaz idatzi...

Euzkadi egunkarian 1913-1921 bitarteko aldikada hazkunde eta heldutasun garaia da, eta euskarazko atalaren aldetik ere bai. 1921ko alderdi zatiketatik hasita, ordea, gauzak aldatuz joango dira. 1922ko urtarrilaren 15etik aurrera egunkaria sei hilabetez kalera atera gabe egongo da, langileen grebagatik. Ondoren Primo de Riveraren diktadurak euskara egunkarian agertzea debekatu zuen guztiz eta, beraz, Kirikiñok gaztelaniaz idatziko du¹². 1926an debekua pixkat laxatzen da eta berriz idatzi ahal izango du zerbeit euskaraz baina guztia itzuli behar du zentsurarako. Gaiak murrizten dira, azken aldera folklore-gaiak gehituz. Diktadurapeko garai honetan Kirikiñok euskararen defentsa lanetan ihardun beharko zuen.

Bilakaera orokor hau garbiago ikus daiteke Kirikiñok betetzen zituen sail edo atalen jarraipena eginez: “Egunekua” (1913-1923); “EAE” (1915-1923, 1922an “Euzko Elez” deitua); 1923-III-3tik hasita “Egunekua” eta “Euzko Elez”en ordez “Euzkel Atala” eta “Gaurko Izparrak Labor”, azken hau gutxiago; 1923ko urrian “Temas Euzkericos”, gazteleraz, 1924-III-18tik “Temas Vascos” deituko dena. Beraz, 1923ko urritik 1926-V-3rarte Kirikiñok gaztelaniaz idatziko du, baita sonetoak ere. 1926 aldera, euskarazkoak apurka-apurka berriro ateratzen hasi ziren, diktadura biguntzen (“dictablanda” deitzen zitzaion azken urteetan) ari zelako ezaugarri, beharbada. Aipagarria da Kirikiño Madrilen ikasten egon zen garaian Primo de Rivera berarekin bizi izan zela etxe eta ugazabandre beraren apopilo¹³. 1926an Kirikiñok “Euzkel Atala” (euskaraz eta gazteleraz, 1927an euskaraz), “Temas Vascos” (euskaraz eta gazteleraz, 1927an gazteleraz), eta “Euzkeraz” (euskaraz, noski) betetzen ditu. 1928ko irailetik Orixek betetzen du haren tokia, nahiz Kirikiñok Mañaritik berriak bidaltzen jarraituko duen.

1913-1923.eko hamarkada da beraz erakusgarriena. Kirikiñoren sail nagusia, “Egunekua”, 1. orrian kokatuta zegoen, ezkerreko zerrenda osoa goitik behera eta batzuetan are bigarreneko zati bat betetzen duela. Bide batez, Kirikiñok *sail* hitza erabiltzen du batez ere –Hiriart-Urruti eta *Argia* aldizkariak bezala–, batzuetan *arloa* edo *atala* ere erabili arren, bereztat gordeta zegoen tokia izendatzeko, jeneralean *zerrenda* bat edo gehixeago (“*columna* izparringikua esan oi dogu *zerrenda* “ erantzuten dio nola esaten den galdetzen dion bati, *Euzk.*, 1915-I-20). Kirikiño eta euskal tradizioan *sail* eta *zerrenda* deitu direnok izendatzeko, gazteleraz biak *columna* deituak, egun kazetari gazteagoek *zutabe* hitza erabiltzen dute, gaztelerazko hitzaren itzulpen hutsa). Hona hemen “Egunekua” sail eta garai honetako gai multzo nagusiak, nola edo hala sailkatuta:

– Euskara: euskal-izenak (umeei jarriak); euskarazko elizkizunak, sermoiak e.a. (adib. Bilbon Azkuek S. Nikolas elizan eginak); ekimen edo kanpainen berri (adib. “Euzkerea den-

12 “La censura nos prohibió publicar cualquier cosa en vascuence, aunque fuese acompañada de su versión castellana, llegando en esto a prohibir las indicaciones bilingües de la cabeza del periódico (mes, día, franqueo concertado, apartado de correos, telégrafo) (*Euzk.*, 1925-VI-17).

13. “Kizkitza”k Kirikiño hil ondoan dioenez, 1923an, estatu-kolpea eman zutenean, Kirikiñok bera Primo de Rivera eta beste batzuekin apopilokide egona zela Madrilen kontatu omen zuen egunkariaren idazgela. “Ante esta revelación, ocurriósele a alguno de los que le escuchaban que “Kirikiño” bien podría saludar al hombre del día, recordándole los remotos años pasados en la intimidad. Y “Kirikiño” le miró compasivamente, cambiando de conversación” (*Euzk.*, 1929-II-3).

detan", e.a.); etimologiak ("itxorkunak") / hitz berriak (adibidez, nola esan euskeraz gaztelaniazko X hitza); euskal idaztiak (liburu, izparringi, aldizkari, egutegi); euskaldun hutsen esakuneak e.a.

– Herrietako berriak (jaiotze, heriotze, eta denetariakoak), batez ere Bizkaikoak, baita Gipuzkoakoak eta noizean behin baina erregularitasunez Araba, Nafarroa, Lapurdi, Zuberoakoak, Kirikiño bertako euskalkietan idazten saiatzen dela. Gehienetan izpar laburrak dira eta batzuetan herri bakar batek saila osorik betetzen du. 1915ean, edozer ez zabaltzeko, herriko buru-batzarrak baimena eman behar izatea erabaki zen (*Euzk.*, 1915-VII-7). Baita Iparrameriketako euskaldunen berri.

– Politika: Euskal Herrikoa, Espainiako eta nazioartekoa. Espainiakoak ez dira hainbeste agertzen, hauek beste edo gehiago agertzen dira atzerrikoak, gerrak bereziki (I. mundu gerra eta Afrikakoa).

– JEL: alderdiko eta Euzko-Gastediko batzar deiak, S. Aranaren heriotze urteurrenak, gerra historikoenak (adib. Mungiakoa)

– Gertaerak: "izpar beltzak", ezbeharrak, lapurretak.

– Egun "Kultura" barruan sar daitezkeenak: ertia (margolarien erakusketak, adib.), eresia, antzezkiak e.a.

– Erlilioa (adib. Aita Santuaren enziklikak, urteroko Begoñara joanaldia, barau eta haragi uzteak noiz, e.a.)

– Gizarte arazoak: lugintza kontuak gutti agertarazten dira eta arlo honetan berri emailerik ez du Kirikiñok, berak ikusia edo K. Enbeitari itaunduta honek esana baitakar. Inoiz Abbadiek *Eskualdunan* idatzi "Laborarier" sailekoren bat edo beste bizkaieratzen du. Garbi dago *Euzkadi* ez zela baserritarrentzako egunkaria (*Argia* asterokoa askoz gehiago izango da). Nahikoa guttitan agertzen dira ere sindikatuen (batez ere SOV-ELA) kontuak.

– Egun "Zerbitzuak" edo holako zerbaitei genitzakeenak: eguraldiaren gorabeherak, itsas-ontzien sartu-urtenak, merkatu eta ferietako salneurriak...

– Barregarrikeriak: kontakizunak eta izkirimiri edo irri solas laburrak. Kontakizunak antzina jazorikoak edo idazleak berak entzundakoak dira. Izkirimiri mordoxka bat *Eskualduna* eta *Gure Herriatik* bizkaieratzen ditu Kirikiñok (esakunak eta izparrak bezalaxe), baita irakurgai laburrak (adib. Barbier-en batzuk), umore eta graziaz kontatuak.

– Neurtitzak: olerkiak eta bertsoak. Maizenik agertzen diren egileak K. Enbeita eta Kirikiño bera dirateke. K. Enbeita bertsolari politikoa zen, alderdi jeltzalearen alde ia jaiogun guztietan bertsotan aritzen zena. Lagun handiak ziren Kirikiño eta biak, eta noizean behin bata besteari bertsotan erantzuten zion. Beste batzuenak ere behin baino gehiagotan agertzen dira, esaterako Eustakio Larrabei "Eule" Laukizko, Errenderi 'tar Erramun Aba "Ori'tar Koldobika" (+1916), "Tene" eta abarrenak. Geroago, Iparraldeko olerkariak (adib. Oxobi), *Gure Herriatik*-eta hartuta.

"Egunekua"rekin arrakasta izan eta 1915ean beste sail berri bat ireki zuen hirugarren orrialdean: "Euzko Abendaren Elez", zerrenda bat baino gehixago betetzen zuena. EAEn herrietako berri ugari dator eta alde guztietakoak, "Egunekua"n bezala baina gehiago. Hemen, herrietako berriemaldek eta beste idazle batzuek idazten dute beraien izenpean, gehienetan Kirikiñoaren oharrekin ("Egunekua", aldiz, Kirikiñok betetzen du ia beti eta bakarrik). Kirikiñok berak ere bai, noski, beste ezizen batzuk ere erabiliz ("Kiriki", "Egi-alde", "Lurrobi"). Idazleen artean aipa daitezke L. Eleizalde, "Arrugain", Aizkibel'dar Bingen,

“Amilgain” edo K. Enbeita. Nolanahi ere, herrietako berriak eskaintzean Kirikiñok *Euzkadin* eginiko lanak garrantzi handia du.

Kirikiñoren kazetagitutzan jenero desberdinak biltzen dira: batzuk kazetaritzari bete-betean dagozkionak (izpar laburrak, komentarioak, agian kronika mota batzuk), beste batzuk artikulismoari zegozkionak (ohitura eta umore artikulua), gehienetan idazle eta izparringian kolaboratzaile zirenek idatziak.

Izpar laburrak oso garrantzitsuak dira Kirikiñorentzat, batez ere herrietako berriak emate-rakoan. Bere ardurapeko berriemate edo urgazleei zer eta nola idatzi behar den agindu zehatzak ematen dizkie: “Ez gero sermoerik!...izparra, izparra ta izparra, argi, ziatz ta labur” (*Euzk.*, 1914-IX-15). Eta hau behin eta berriz errepikatzen die.

“Ondoen-ondoen egingo zeunkie izparrak bidaldu, *sermoia* ba gaitz da ondo egiten; eta ez uste errijan edo inguruban jazoten diran ezgauzatzu edo uskeritxubak elitxakezala irakurri-ko; bai, begiratu egixube izparringjetako *gacetillas* izparretara, alakoxiak askok irakurten dabez pozik, batez be errikuak: nor il edo jayo edo eskondu dan, nor etorri edo juan dan erri- jan, nor dagon gexorik, ze lanak dabilzan, alkatiak zer diñon, solo-baratzak zelan dagozan, elekan ze barri dan. Ze saldu-erosi dabillan errijan, osalari edo maixu edo onetaikoen goraberak, eta orretariko asko ta asko, labur jarrita, Motriko 'ko Aberri'k ipinten dauzan lez” (*Euzk.*, 1915-III-24).

Eta izparrak ondo ebakita, adibide eta ereduekin (*Euzk.*, 1915-IV-2). Izpar laburrok gaika edo atalka ebakita agertzen dira (adib. “Bizkaia”, “Gipuzkoa”, “Atzerri”: hemen datoz gehie- netan I. mundu gerrakoak. Ikus izpar laburren adibide batzuk azken atalean, mundu gerraz aritzean). Eta izparrik ezean, “izpar bako idazkiak, batez be eguneko arazuen bati ukutzen dautsienak” onartzeko prest dago (*Euzk.*, 1921-VI-28). Eta noizean behin eztenkadak ere bai: “Betoz ba izparrak ugari, sermoerik bapez, ta destaña...iñoz, ta orduan labur ta ondo jaurtin- da, irakurrijaz batera barre eragingo dauna” (*Euzk.*, EAE, 1917-V-27).

Bizkaitarran hasi zen Kirikiño izpar laburrak ateratzen, asteko berri nagusiak ematerako- an (*Bizk.*, 1911-IV-8), izpar laburrok bestelakoetatik bereiziz. Hor hasi zen ere berriemateei aginduak ematen: idazki laburrak, mamindunak (“Azala ta barriketia alde batera itxi ta mami- ña bakarrik imiñi”), erraz irakurtzeko eran idatziak bidaltzeko (“Entzun. Euzkeldun idazliei”, *Bizk.*, 1910– XI-19). Oso maiz agertzen dira izpar laburrak *Bizkaitarran*, 1. orrialdean: lehenik titulutxo labur-laburra, hitz bat edo bikoa (tituluek, hala ere, ez zuketean hainbesteko garrantzi- rik, geroago Espainiako gerratean, adib. *Egunan* izango duten adinakorik behintzat). Eta jarraian lerro berean izpar laburra: paragrafo bat edo bi, inoiz hiru; paragrafo bakoitzak bi- hiru esaldi; esaldiak gutxi gora behera 15 bat hitz. Eta lehen esaldian izpar hutsa eta gero komentarioak.

Kirikiñoren komentarioek (batzuetan “zeresanak”, beste batzuetan “gogaketak” deitzen dituenak), garbi adierazten dute haren iritzia (azalpen edo aldeko argudioren bat emanez). Hauek dira nagusi Kirikiñoren kazetalanetan. Berriemateen artikulua serioei, ostera, beldur die (“sermoiak”, “pilosopijak”, “itxelak” deitzen ditu guttiespenez).

Izparrak eta gogoetak aldizkatzera jotzen du Kirikiñok *Euzkadin*. Haren ustez gaiak eta idazki mota desberdinak aldatzea, barietatea bilatuz, irakurleentzat atsegingarria da (eta atsegingarritasuna bilatu behar, irakurleak izango baziren):

“toki onetan beti be argitzen dira idazkai benak, gure idazkide arek edo onek bidaltzen daukubezanak. Gustitarikuak argitzen dira: toki onek auxe dauko ba atsegingarrija, aldatija dala; egun batan aurkitzen dozu idazkai bena, bijamonian izpar abertzaliak (euzkel-ixenak eta abar), urranguan ostantzeko izpar labur pillotxu bat, gero gudeatzazko zeresan batzuk,

ostian barregarrikeri batzuk, iñoz aginkadak be bai *geuria galtzen dagozanai* ta onan, aldatu, beti gauza bat erabilili barik irakurliak gogaitu eztaitezan.

Artículo de fondo serioak biar dabezan oneik, irakurriko ete leukiez gero eurak? ¿Orrek Batxi´ren serio orrek irakurri ete ebezan Mibibus ta Zinkunegi ta Eleizalde ta beste orain gomuta eztodazanak emen argitaldu diranak?" (*Euzk*, Eg. 1915-IX-22).

Kronika mota batzuk ere, esate baterako gerra-kronika itzuliak, ikusiko dugunez, eta agian herrietakoak ere agertuko dira haren sailetan. Kirikiñoaren sailak garai hartako euskal herrietako kontuak ezagutzeko iturri oparoa dira zinez. Eta albisterik ez bazuen ere, herriko norbaitekin berriketan ekin eta zerbait barregarria kontatuko zuen.

Orohar, Kirikiñoaren kazetalanetan komentarioak berriak baino gehiago eta iritzia berri hutsa eta azalpen hutsa baino garrantzitsuagoa da. Ohar bedi garai hartan eta gure artean oraindik kazetaritza ideologikoa zela nagusi: dotrinala, morala, proselitista, ideia politiko eta erlijiosoan aldekoa, alderdi politiko eta ideologiaren arteko burruka agertzen duena, eta zer esanik ez *Euzkadi* egunkarian. Hala ere, kazetaritza informatiboa bere bidea egiten ari zen, Kirikiñoaren izpar laburrek erakusten dutenez, eta mundu gerraren ondoren nagusitzen hasiko da. Garai hartako eguneroko eta aldizkariak alderdi edo joera baten aldekoak izan ohi ziren erabat eta beraz Kirikiñoak bere burua egiaren lubakian kokatuko du, egia eta gezurra bata bestetik bereizi nahiz (ik., adib., "Gudea", *Euzk.*, 1914-IX-3, GN 65). Kirikiñoaren asmo nagusietariko bat kontrakoek esana gezurtatzea izango da. Bestalde, garai hartako irakurleak bere egunerokoa irakurtzen zuen (eta irakurleko horri egokitu behar zitzaion baina berorrek ere baldintzatzen zuen kazetaria hein batez). Jakina, egungo irakurleekin konparatuz gero, orduko irakurlea egungo ia nornahi baino askoz guttiago informatua zegoen.

Kirikiñoaren kazetalanetako gaiak gehienetan egunekoak edo aktualitateari lotuak dira: politika, euskara, mundu gerra, bizitzaren gorakada...Baina beste batzuetan historiako pasai-zuak (batez ere karlista gerratekoak), jazoerak (berari gertatuak edo entzunak) edota ohitura artikuluetako ohikoak dira. Hain zuzen, Kirikiñoaren ipuin gehienak jazoeretan oinarrituak dira, ez dira irudimen hutsaren fruitu, eta errealismoz kontatuak dira, nahiz askotan irudimen lana ere erantsi. Ipuin laburrak, tartean elkarriketa umoretsu eta txispadunak dauzkatela. Hona hemen Kirikiño idazlea.

Baina gaztelaniaz *articulista* deitzen ziren kazetari-idazle (kazetari baino gehiago idazle) haien modukoa ere bazela ahaztu gabe, ohitura eta umore artikulua haiek kazeta jenero gisa lehenago zuten beregaintasuna galdua baitute egun. Zeren Kirikiñoaren garaian aspaldiko kontu eta gertaerak, eguneroko berriak bezain baliagarriak baitziren etsenplu jarraigarri edo gaitzesgarritzat, kontakizun horren bidez irakatsi nahi zena adierazteko edo ondorio onuragarriak ateratzeko. Beraz eguneko izparrik ez zuenean berdin oroimenaz baliatuz edota berriketak bidez ahoz-ahoz jasotako kontuez baliatuz sortzen zuen irakurgaia. Kontatzea zuen atsegin, baina ez zen kontaktatze hutsak dakarren gozotasunagatik, kontakizunok pentsaera eta jokaearen argazki zirelakoan baizik, J. M. Agirrek dioenez (1981: 11). Kazetari eta idazle gisa ari da aldi berean. Berezia da Kirikiño alde honetatik ere.

IRAKURTZEKO ETA IDAZTEKO ZALETASUNA PIZTEN

Euskaraz irakurtzeko zaletasuna piztea zen Kirikiñoaren behin-behineko xedea. Abertzale eskolatuek ez ezik, irakurtzen zekien euskaldun jende apalak euskaraz irakurtzea bilatzen zuen Kirikiñoak. Zenbat irakurle zituen?: "Zenbat ete dira izparringi onetako gure euzkerea irakurten dabenak? Bosteun bai?" (*Euzk*. 1917-IV-25, ik. *Edo geuk*., 167). Askok ez zuten egu-

nero irakurriko, noizean behin edo jaiegunetan baizik, eta batez ere haren barregarrikeriak¹⁴. Egunkarian eginiko hamar urteren buruan Kirikiño pozik agertzen da bildutako uztarekin: "Berton batatz beste argitaldu dira iru zerrenda euzkeraz, eta askok oiturea artu dabe euzkerazko idatzijak irakurteko; eta askok eta askok baita euzkeraz idazteko be. ¡Amaikak euzkerrea gogortu dau bere goguan geure izparringi au dala-ta!" ("¡¡Amar urte!!", *Euzk.*, 1923-II-1). Aipagarria da idazle eta euskalari zenbaiten lekukotasuna, Garro "Otxolua" edo S. Altuberena, berbarako¹⁵. Azken honek *La vida del euskera* liburuan zera dio: Kirikiñok, herri euskara edo ahoko euskaratik hurrekoan idaztean modaren aurka jokatu zuela, baina beste aranatar guztiak baino irakurle gehiago erakarri zuela.

Idazteko zaletasuna ere piztu zion mordoxka bati, adorea emanez, kazetan nola idatzi behar zen irakatsiz eta batzuk are idazle bihurtuz. Azken hauen artean, bere ikasle ohi batzuk, abertzale gazte eta euskaldun berriak, *Bizkaitarran* bere kide izan zituenak, edo *Euzkadin* berriemaile: J. Altuna ("Amilgain", "Txori-Toki", "Azparren"), Kirikiñoren ondoren asterokoan gehien idazten zuena, izpar laburrak nahiz artikulua ideologikoak; M. Arruza "Arrugain"; "Jadarka", "Pizkunde-Zale" (euskal irakasle Bilboko gaztetxe batean), "Leizkain" e.a. (lk. "Idazle barrijak", *Bizk.*, 1910-XII-17). "Otxolua"k ere bere irakasletzat jo zuen Kirikiño, aipatu dugunez.

Gainera herrietako berriemaile sare bat osatuko du *Euzkadin*, 200 bat berriemaile edota urgazle (berak "idazle" deitzen zituenak) biltzeraino helduz, Euskal Herriko alde guztietakoak, baita erdal herrietakoak: "Idazle geien-geien oneek, izparringi auxe argitaldu arte ez eben itzik idatzi euskeraz urrean, bururatu be etxaken olakorik" (*Euzk.*, "Urte bi", 1915-II-1. *Edo geuk*...89. or. aipatua; 1914koak aip. liburuaren 65-70. or. ikus daitezke). Hauetariko batzuk benetako idazle izango ziren: Tx. Arruti "Mendi-Lauta", A. Anabitarte "Anabi"...Beste batzuk, ezagunak zirenak: K. Enbeita, F. Belaustegigoitia, Ixaka Lopez Mendizabal, J. Zinkunegi osalaria, Aizkibel' dar Bingen, Altube e.a.

Berriemaile gehienak, hala ere, ez ziren jakintza maila handikoak: "Azken urtietan, batez be, idazle geyenak edo danak ixan dira gixon apalak, langille artekuak" (*Euzk.* 1921-II-13). Batzuek apaintxoago eta beste batzuek zabartxoago idatziko dute. Zeren kazetan idazten ere irakatsi zien, azaldu dugunez: haien idazlanak zuzendu ("sermoia" edo "pilosopija" moztu, mailebuak garbitu, idazkera aranatarrean jarri) eta apaindu egiten zituen ("askoren idazkijetako euzkerrea be orraztu edo atxurtu egin biar ixaten dot", *Euzk.*, 1915-IV-21). Kazeta idazleak trebatzen ere saiatu zen, bide batez. Beraz, irakurleago bat sortu eta herrietako berriemaile sare bat antolatuz *Euzkadi*-rako, gero *Euzko* eta *Eguna*-k baliatuko zutena, Diez Nocik ja esana duenez¹⁶.

14. A. Manterolak diostanez, Zeanurin baziren jaiegunetan "papela" erosten zutenak Kirikiñoren barregarrikeriak irakurtzearen.

15. Hona hemen Kirikiño hil ondoan "Otxolua"k esanak: "irakatsi euskun eundaz eta eundaz euskalduneri euskerara maite izaten". "Amasei urtebete-betetan ekin eutsan lan oneri gogait egin barik, eta ez dau iñok euskerazaletu Kirikiñok Euzkadi eguneroko onen bidez euskalazaletu dauan baizen lagun askorik. Euzkadi egunerokoa baiño beste ikastola andiagorik izan ez dogunok, liburuetan arakatuteko biarbada astirik ez abagaduneri izan ez dogunok, daki-gun apurra Kirikiñori zor deusagala autortuaz gure eskar ona erakutsi baiño ez dogu egiten. Gure irakasle zanari zor deusagun eskar ona" (*Euzk.*, 1930-I-31).

16. Díaz Noci, J. *Euskarazko prentsa XX. mendean (1919-1937)*. *Euskal kazetaritzaren sorrera eta garapena*, UPV-EHU, 1992. lk. 146-153, 663, 742. or. Gerra aurreko euskal kazetaritza bere osotasunean. aztertu asmoz eginiko tesia, ikuspegi zabal eta datuz oparrea. Laburtuta, *Euskal prentsaren sorrera eta garapena (1834-1939)*, Eusko Ikaskuntza, 1995.

Berriemaileokin elkarrizketa bultzatzen zuen, bestalde, haien idazlanen ondoan bere ohar-
rak argitaratuz. Irakurle eta berriemaileen galderekin betetzen ditu batzuetan bere sailak.
Kirikiñoren beraren artikulua asko irakurleen galderek sortaraziak dira. Eta berriemaileen lanez
gain, beste batzuenak ere agertarazi zituen: 410 baten izen eta ezizenez sinaturiko lanak argita-
ratu omen zituen egunerokoan, horietako batzuk oso gazteak (*Euzk.*, 1921-II-13). Bada zerbait!

Ikuspegi orokorrago batetik begirata, euskaraz irakurtzeko eta idazteko zaletasuna
pizteak bere fruituak emango zituen geroxeago, Errepublika denboran, euskaraz idazteko
ohitura sortuz eta finkatuz joan baitzen, dirudienez. Honetan Kirikiño eta *Euzkadi* ez ziren
izan langile bakarrak: elizgizonek bultzatutako aldizkariak ere hor ziren (adib. *Ekin*,
Jaungoiko-Zalek bultzatua, Bizkaian, *Zeruko Argia* Nafarroan, *Argia* Gipuzkoan e.a.).

EUSKARA “GARBIA” ALA ATSEGINGARRIA?

Kirikiñoren euskara aztertzea arazo nahiko konplexua da, alderdi bat baino gehiago
agertzen delako. Alde batetik, Kirikiñoek bere irakurle gehienen egoera eta euskara maila ain-
tzat hartzen du eta bitarteko eragingarrienak jartzen saiatzen da: “Euzkeraz irakurtzeko gure
erri au ondiño ume bat lakua da, ta orregattik emon biar yakoz, aldala, gauza laburrak eta
pozkarriyak, gogait egin eztagijan” (*Bizk.*, 1909-III-13). Beraz irakurgai labur eta arinak, ulerte-
rrezak, farregarriak bilatzen eta eskaintzen ditu, hots, *abarrek*, egur mehe-meheak euskara-
ren sua pizteko. Atsegin emanez nahi ditu irakurleak irakurtzen eta idazten zaletu eta ohitu.
Eta “eurok idatzi dira gaurko euzkeldun geienak dakien euskeraz, geienak irakurri ta ulertu al
dagien euskaraz” aditzera ematen du, “irakurgaitxu oneitan aurkituko dozuzan erderatiko itz
ugariak” euskara garbiaren zaleei muturra okertuarazi arren (*Abarrak*, 1918, “Irakurlientzat
uarr”). Jokabide bera defendatu zuen *Euzkadi* sortu zenean (“Zelan idatzi?”, *Euzk.*, 1913-II-
10, *Edo geuk...* 21-22), baita “Jadarka”rekin izandako eztabaidan (*Euzk.* 1916-VIII-9) eta bere
bizitza osoan¹⁷. Horregatik pozik ikusten zuen Bilboko *Euzko-Deyan* irakurgai laburrak, eta
gero eta euskara errezagoan idazten zirela (*Euzk.*, 1917-III-4), baita geroago *Argian*. Beraz
Kirikiñoek lehenbizi irakurlearen ulertze eta gozamina bilatzen du, gero euskara garbia. Hau
da Kirikiñoren alderdi bat, mailebu errotuei muzinik egiten ez diena, ipuinliburuek eta beste
hainbat kazetalanek erakusten dutena¹⁸.

17. Hona hemen Kirikiñoren jokabidea *Euzkadi* egunkarian: “Agaitik, ondiño euskera zeatza artzeko bigun edo makal dagozan euskaldunei euskera erraza, euskera ariña, euskera loa, euskera mordoilloa emongo jake izparringi onetan irunsi al izan dagien. Au iruntsiten ikasten badabe, ta baietz uste dogu, indartuko jake urdaila, geroago koipe geiagodon janaria irunsiteko. // Garbizaleak ez doguz jaurtiten, ez dautseguz atek isten; betoz ordu onean eurak be, lekua emongo dautsegu. / Euskera garbiz pozik imiñiko doguz irakurki laburtuak euskerazko toki onen aurrenengo; irakurki auxe berau argitzen dan leku berberan. / Guztien atsegiña egiten gauza gatxa, edo gauza eziña dala esan oi da. Alan uste dogu; baiña alegiña egingo dogu” (*Euzk.*, 1913-II-10, *Edo geuk* 21-22).

“Gure erriyak eztauko oiturarik ez zaletasunik euzkeraz irakurtzen; oraintxe gabiltz zaletasun ori sortuteko alegiñe-
tan, eta nekez-nekez ikera eragiten dautsogu; urtiak eta urtiak biar dira euzkel-irakurliak zerbait geituteko. Onetan zeo-
zer esateko bainago, iraoko amasei urtietan beste zeregiñik eztarabit-eta (...) gure irakurliak apurtxu batzuk baño
eztira, auxe da egija. // Ba, irakurle, apurtxuoi eutsiteko, ta nekez-nekezka barriyak ekarteko, poztu egin biar doguz
eurak nauka erraz ulertuko daben euzkeria erabillijaz...// Gure errija da arazo onetan oyaleko umia lakoxia, alikatura
biguna, eyoten erraza, emon biar yakona indarra artuko ba'dau; emoten ba'yako lukainkia, makallu erria, ta napar-
ardao sendua, ume orrek porrot egingo dau. Orrez ganera, erderatiko jatorrija daukoka itz batek eta beste barik ataratia
(...) nik eneukez kenduko” (*Euzk.*, 1916-VIII-9, Kirikiñoek “Jadarka”ri).

18. Hona hemen Kirikiño hil ondoan haren hurreko idazle bik esananak: “Euskerea idaztean garbitasun zalea
zanarren, beti euki eroyan gogoan erriarentzako idazten ebala, ta erriak ez dauzala askotan ondo artzen garbikeri
larregiak...” (M. Arruza “Arrugain”, *Euzk.*, 1929-II-3). “Gran parte de la tendencia última, intermedia entre el absoluto
purismo y el vergonzante barbarismo popular, a su dirección se debe” (“Orixte”, *Euzk.*, 1929-II-9).

Baina bada beste alderdi garbizaleago bat ere, garbizaleei atek ez baititzkie isten, aitzitik euskara garbiko irakurgai laburrei lehen tokia gordetzen *Euzkadin* (ik. aipatu "Zelan idatzi?", azken oharra). Berak ere idatziko du askotan euskara zehatz eta garbi horretan, irakurle arruntari barik garbizaleari zuzentzerakoan, euskalaritza artikulua edo olerkiak esaterako, I. Lakak dioenez (*Abarrak*, 1986, sarrera), nahiz garbi edo ez hain garbi idazte hori testu motaren arabera ez ezik komunikazio-egoeraren arabera ere izan daitekeen (ik. adib. *Euzk.* 1917-XI-28ko neurtitzak, hitz mailebatuak ere badituztenak). Abertzale gisa, asmoz edo azken helburuz garbizalea zen (abertzaletasunarekin batera zihoan euskara garbitzea, esan dugunez), eta, hala ere, euskararen orduko egoeratik abiatuta bitarteko egokiak bilatu behar zirela pentsatzen zuen. Jokabide bikoitza eta konplexua, beraz, Kirikiñorena, *Euzkadi* egunkarian bederen, ipuin liburuetan lehen jokabidea hobetsi baitzuen garbi.

Kirikiño aranatarra eta garbizalea da, baina neurritz. Arana-Goirik (eta Azkuek *Euskal-Izkindearekin*) euskara berri bat ekarri zuen, eta Kirikiñok Arana hartu zuen autoritate nagusitzat hizkuntza kontuetan ere (esate baterako bere aurreko idazkera aldatu eta *euzkera*, *gaste* e.a. idazten hasi zen, Aranak hori irakatsi zuela-eta (*Euzk.*, 1919-XI-29). Ortografia eta hitzen formari dagokionez, Kirikiño aranatarra da alde guztietatik. Hiztegian ez ezik, morfologia eta joskeran ere Arana (eta Azkueren) euskara berri horrek tradizioa hausten zuen eta Kirikiño ere bizkaiera klasikotik aldentzen da¹⁹.

Hiztegi "garbia" zen euskara berriaren ikurra eta Kirikiño ere mordoiloaren aurkakoa zen, euskera "garbia" "loia" baino hobetzat zuelako, eta euskara garbi horren etorkizunean ustea jarria zuelako segurki. Baina erdaratiko mailebu guztiak kentzearen aldekoa ere ez zen: adibidez, *ondo* hitza latineko *fundus* hitzetik datorrela-eta euskeratik kentzea "gogortxua deritxot" erantzuten dio "Jadarka"ri, harekin izandako eztabaidan. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez zegoelako, erdaratiko mailebuak ez kentzearen aldekoa genuen Kirikiño (*Euzk.*, 1916-VIII-9). Alde handia dago beste kontu batzuetan ere Kirikiño eta azken zuztarreko garbizaleekin, jo dezagun Arriandiaga batekin: honek hika beti erabili behar dela esan duela-eta Kirikiño trufatzen da maltzurki ("Itanoz", *Euzk.* 1916-IX-14, ik. *Egunekoa* liburuan, 82-84); eta ahozko euskararen onespenera dagokionez, zer esanik ez. Zuhurragoa zen beraz Kirikiño eta oinak errealitatean landatuak zeuzkan. Euskararen bizitzari begira, harentzat euskaraz hitz egitea zen garrantzitsuena. Eta areago diktadura garaian, azken urteetan dioenez: "euzkeraz egizu...motrolloz dala naiz garbiz dala...jegin!!" (*Euzk.*, 1928-II-19).

Ezin uka Kirikiñoren euskarak aranatarren garbizaletasunaren edo euskara berri honen ezaugarri asko dituela, ondoren zehaztuko ditugunak. Hasteko, hitz berri asko eta ugari darabiltza, euskara zehatz eta garbi horretan nola esan gaztelaniazko X hitza eta antzeko kontuez

19. Díaz Noci-k bere tesian eta artikuluan batean ("Euskal kazetaritza eta hizkuntz-ereduak" artikuluan, ASJU, XXVIII-3, 1994, 798. or.) Kirikiñoren hizkuntz ereduaz esandako kontu batzuk ez ditut guztiz zuzentzat jotzen. Alde batetik, Arana Markinako eskolan eta bereziki Astarloagan oinarritu zela (tesia, 630, 729, 762. or.), eta Azkue, aldiz (*Euskal-Izkindeakoa?*), Bizkai-erdi, Arrati eta bereziki Añibarroan. Zeren eta bien kasuan tradizio klasikoarekiko desberdinasunak askoz larriagoak baitira antzekotasunak edo tradizio horretatik jasotako gauzak baino, Arana eta Azkueren hizkuntz-ereduez azkenaldian eginiko azterketek erakutsi dutenez, eta artikuluan honetan beheraxeago ikus daitekeenez. Beste alde batetik, Díez Nocik "bi eredu oso desberdinak: bata, Ebaristo Bustintza eta aranistena, euskara "garbia"ren aldekoa, Euzkadiakoa, eta bestea, Mujika, Garitaonandia eta euskara errazaren aldekoa, Argiakoa" (tesia, 150. or.) direla defendatzen du. Kontrajartze hau biribilegia eta orokorregia iruditzen zait. Kirikiño "garbia" bada (oso aranatarra omen delako) ulerkaitz samarra ere izango da, baina orduan nola uler haren arrakasta -erlatiboa bederen- *Euzkadi* izparringian eta ipuin liburuetan? Kirikiño behintzat kasu konplexuagoa delakoan nago eta haren atsegin-garritasun eta garbizaletasun ematuak herri euskararekin eta arrakastarekin zerikusi handia dutelakoan. *Euzkadi* egunkariko eta *Argia* asterokoko irakurleko euskalduna eta kazeta horiek izandako eragina ere zerbait hobeto ezagutzea komeniko litzateke.

artikulu-sail osoak argitaratzen ditu, ikusi dugunez. Kirikiñok erdaratiko mailebuak bazterten eta ezabatzen ditu, horien ordeztan Aranak-eta sorturiko hitz berriak ezarriz: esate baterako, *Margo-ertija* esan behar omen da, eta ez *Arte piktorikoa*, *Pinturearen artea* edo *Pinturazko Artea*. Jakina denez, Aranak berak sortu zituen hitz berriak, lehen erroak ("raíces primitivas", Astarloak zioenez) + lege fonetikoak aplikatuz eta horrela hitzak osatuz (*aba>abenda*, *aberri*; *eguzki->euzk>Euzkadi*). Eta haren irizpideei jarraituz, Arriandiaga eta beste asmatzaile batzuek hitz laburrak, ebakitzen errezak eta biribilak bilatzen zituzten (*Euzk.* 1916-XII-16). Baina Kirikiñok hitz berri horiek irakurleek uler ditzaten bilatzen du, horretarako bide batzuk erabiliz: parentesi artean jarritz, esan-nahia erderaz adieraziz, esan-nahia azalduz, 'edo' bidez, hitz berrien zerrenda ezarriz artikuluen zolan, e.a. Hala ere, hitz berriak erabili eta azaldu ordeztan mailebuak erabiltzen ditu, markatuta agertzen direnak kurtsibaz jarritz, gaitzesten direlako ezaugarri, egileak efektu erretorikoa eman nahi diezaiekeela ahaztu gabe. Hitz bikoteak ere bai, Azkuek "banaketa semantikoa" deitzen zuena eginez, adibidez *agindu* 'mana(tu)'/ *abindu* 'hitzeman'.

Morfologian Kirikiñoren euskarako zenbait fenomeno aipa daitezke. Aditzarenean: 1) Adizki trinko ugari erabiltzen du (azalduz, hala ere, batzuetan), bokalez hasten diren aditz inoiz erabili ez dutenetara zabaltzen dituela, are iraganean: *damingu*, *ditaun*, *egitsoen*, *erakutsoen*... (*Abarrak*, Onaindiaren ediz., 72). Ez, ordea, iotaz hasten direneta, Arana edo Eleizalde bezala, are gutxiago aditz guztietara, Arriandiagak bezala. 2) Hitanoa subjuntiboan eta inperatiboan erabiltzen du (egin *yaiguan*), batzuetan *-k* bukaerarekin (*yakiguk*, *etxaukoguk*, ik. *Edo geuk*... 138). 3) *dauts-*, *geba(za)n* e.a., bizkaiera klasikoko *deuts-*, *gendu(b)(za)n* eta abarren ordeztan. 5) *bai-dator* baieztapenezkoa (gidoiarekin) /*ba'dator* baldintzazkoaren arteko bereizketa.

Izenaren morfologian: 1) Inesiboan *-an* (*Ate Guren'an*), kontsonantez ala bokalez bukatzen diren berezi gabe. 2) Mugagabea eta deklinabide mugatua ez ditu ondo bereizten bata bestetik. 3) Instrumental sing. *-tzaz*, pl. *-etzaz*. 4) Izen propioetan *X'tar*, eta *-e* andrezkoaren markatza, adib. *Ebaista*, *Sabina* vs *Ebaiste*, *Sabine*. Are forma aldaketak, euskal fonetika egokitzeko ustetan (*Porpiri Diaz*, *Doitze*, *Doitzerrri*), bokal anapititiko eta guzti (*Parantze*, *Ingalanda*).

Ortografia etimologikoa da Kirikiñoren beste ezaugarri bat. Esaterako, eta txistukariei dagokienez, Aranagandik ikasi zuen ondorengo hitzen idazkera: *euzkera*, *azkatu* 'soltar', *esker* 'izquierda', *gastea*, *saspi*, *a(d)izkide*, *ziñetsi*, *zorgin* 'bruja', *ixan*, *gixon*... Azken hauetan ikus daitekeenez, *i* ondorengo txistukariaren bustidura gertatzen da (*matte*, *itxaso*, *aurkitxen*). Ortografia eta lexiko arantarra goitik behera ezarri zuten Kirikiñok-eta *Bizkaitarra* eta *Euzkadin*, esan dugunez, idazkera batuz (fonetika desberdina zela-eta gauza batzuetan askatasun gehiago emanez, adib. *-ija* nahiz *-ia*, edo *ixan* nahiz *izan*, *Euzk.* 1919-IX-28, IX-30). Beste hitz batzuetan ere ez zuen txistukariaren arteko bereizketa grafikoa egiten, hala idazten ikasi zuelako-edo (adib. *gusti*, *arratzalde*).

Txistukariak alde batera utzita, markinar klasikoek eta S. Aranak bezala *j-* (baina aditz laguntzailean *y-*, adib. *juan yake*), *p-*, *-p-* (*puxil*) eta bokal arteko eufoniak eta aldaketak jasoz (adib. *andija*, *sutsuba*, *aurrian*, *juan*) idazten du. Kirikiñoren idazkera, hala ere, bere bilakaeran aztertu beharko litzateke, zeren hasieran Azkueren antzera-edo idazten baitu, adib. *Ibaizabal* en *bakarcho*, *euskera*, *gueu*, *orisse* (marra s bikoitzaren gainean), *Gaztelarra* (*Euskalzale* eta *Ibaizabaleko* Azkuek Kirikiñogan izandako eraginaz, ik. Laka, aip. sarrera), eta azken aldera, berriz, 1927-1928 inguruan, aldatzen duela baitirudi, adib. *euskaldun*, *euskeraz*, *bai yoyazan*, *jaupariya* e.a. idatziz.

Joskerari dagokionez, anaforikoen bazterteak ere (*zein*, *zerren*...+ mendeko perpau-sak), Azkuek eta Aranak egin bezala, orduarteko euskal hitz lauarekiko hausketa bat adierazten du.

Kirikiñok euskalari eta etimologista bezala jakintza handirik ez zuen beharbada, eta seguraski ez zuen gehiegi ezagutzen euskararen tradizio idatzia. S. Arana eta euskalari aranatarren idazlanak ondo ezagutzen zituen, ordea, eta garaiko aldizkariak irakurtzen, euskalki guztietakoa gainera. Hizkuntza eta politika bata bestearekin nahastean (Kirikiñok euskara mordoiloa karlismoarekin lotzen du), batzuetan eztabaida garratzak sortaraziko ditu, adib. J. Urkixorekin²⁰. Autoritatetzat hartua izan bide zen aranatarren artean (*Euzko-Deya*, *Euzkerrea*) Arana, Arriandiaga eta Eleizalderen ondoan. Kirikiñoren eragina nabaria da, adib. *Egunako* kazetaegi-leengan ere (euskara eremuan, hitz teknikoetan, hitzen adiera figuratuaz baliatzean, e.a.).

Bestenez, Kirikiñoren euskara oso interesgarria da ahozko hizketa jaso eta hizkuntzaren adierazkortasuna ustiatzen dakielako (ik. hurrengo puntuan). Kazeta-hizkuntzaren saio gisa dukeen balioa ere aztertzea da, are hitz teknikoen aldetik (aranatar hitz berriak alde batera utzita ere).

Kirikiñok gipuzkeraz ere franko idatzi zuen, *Euzkadin* bizkaiera eta gipuzkera biak erabiltzeko ohitura baitzegoen, eta ordua da bizkaitarra zenez bizkaieraz bakarrik idatzi omen zuelako uste okerra desegiteko²¹. Lapurteraz ere saiatzen zen, Lapurdiko berriak ematerakoan, eta bizkaieraz bestelako euskalkian idatzitako lanak bere hartan errespetatzen ziren *Euzkadin* (aranatar idazkeran ezarri, noski). *Argian* gertatzen ez bide zena, hemen dena gipuzkeratzen baitzen.

Euskararen batasunaren beharrik ez zuen ikusten, ordea, Aranaren jarraitzaile eta iritzi bereko baitzen, ez euskalki baten gainean eraikitako eta ez bestelako euskara baturik. Euskaltzaindia sortu zenean ez zuen berori begi onez ikusi, premiarik ez zegoela-eta, Gr. Mujika "J. M. Ojarbide" *Argia* eta *Euskal Esnaleako* kazetari eta idazlearekin eztabaidan sartuz, honek Euskaltzaindiari men egingo ziotela aditzera ematean. Jokabide hau, dena dela, Kirikiño eta beste aranatar batzuenaren, ez behintzat alderdiarena (hots, "Comunión" delakoarena), Akademia onartzen zutenen artean egunkariaren zuzendaria bera baitzegoen, E. Aranzadi "Kizkitza"²². Beraz Kirikiño ez zen Euskaltzaindiarekin konpromezutu, Akademian sartzeko aukera izan arren kanpo geldituz, alderdiaren diziplina bai baina Euskaltzaindiarena ez baitzuen onartzen. Hala ere, Kirikiñok zintzo jokatu zuen Euskaltzaindiarekin (eta aipatu Urkixorekiko eztabaidaz kanpo RIEVekin ere), horien aldizkarien berri emanez eta erabaki onuragarriak txalotuz (ik. adib. *Euzk.*, 1922-VIII-19; 1926-VII-18). Euskararen batasunerako ez bazen ere, elkartasunerako behintzat prest zegoen: barbarako, Bizkaian asteroko bat nahi zela-ta *Argia* bizkaierari bost orri eskaintzeko prest agerturik, onargarria iruditu zitzaion eskaintza ("Euzkerazko asterokoa", *Euzk.*, 1928-III-29, *Edo geuk...*275-276).

20. Kirikiñok Urkixo kritikatu zuen RIEV-en dotrina eta liburu zahar batzuk, Kirikiñoren iritzi erderakadaz josiak, berragitaratzeagatik, "kirtenkeriak" zirela esanez. "Nik, benetan diñot, orrelako idaztirik (libururik) iñun aurkituko baneu, apurtu egingo neuke ta iñok ez leuke jakingo, lotsagarriak diralako" (!). Urkixok erantzun: "soy partidario de la purificación (relativa, claro está) del léxico vasco; lo que desapruébo es que ejerzan de purificadores y de etimólogos los que carecen de preparación suficiente para tan difícil labor". Kirikiñok berdintu erantzun zion, Urkixoren maisukerian ez zuela sinesten esanez (*Euzk.* 1914-VIII-17, ik. *Edo geuk...*51-56).

21. *Bigarrengo Abarren* prestatzaileek (Klasikoak, 49, 1991) "Bizkaitarra denez, bere obra guzia bizkaieraz agertzeaz gain..." diote, behar txoago ere errepikatuz (Sarrera, 9. or.). Arrazoi gehiago, bizkaitar batek beste euskalki batzuetan ere idatz zezakeela susmatzeko, esango nuke, *Euzkadi* zer zen eta nola sortu zen jakinez gero. Ja X. Perek *Guda Nagusia 1914-1918* liburuaren (1989) sarreraren ohartarazia zuen gipuzkeraz ere hamaikaxo aldiz idatzi zuela Kirikiñok. Aipatu edizioan, gainera, Kirikiño elaberrigiletzat eta *Abarrek* eta *Bigarrengo Abarrek* elaberritatzat jotzen dira bi adiz (Sarrera, 8, 9. or.) (!).

22. "Eleari buruz, Jel-Batzak, argi ta garbi diño, Euskadi'ko alde guztietan elerti ta idatzi gauzetarako euskelgi bakar bat erabili bear dala; euskelgi ori izentatzea, orretarako gai diranen bazkunakan utzirik, eurek egoki deritxen bide ta eraz erabakia emon dagien" (*Euzk.*, 1923, martxo-apiril inguruan).

KONTALARI UMORETSUA

Kirikiñoen interes, berezitasun eta arrakastaren gakoa idaztankeran dago. J. M. Agirrek jada 1981en (*Egunekoa*, sarrera) haren estiloaren ezaugarri nagusi batzuk aztertu zizkigun (irakurleekiko harremanak, ahozkotasunaren bitartekotza, umore-mota nagusi batzuk, hizkuntz-adierazkortasuna...), hemen oinarri izango ditudanak.

Kirikiñoek, bere saila egunero idaztean, irakurlearekin lagunarteko harremanak bilatzen ditu. Lehen pertsonan zuzentzen zaio eta elkarrizketaz baliatzen da, irakurlea ere solaskide bihurtuz, batzuetan irudimenaz jokatzuz (adib "Kuku bategaz interview", ik. *Egunekoa*, 109-111, 114-116). Eguneroko elkarrizketa hori bizia izan dadila nahi du eta ahozko mintzairatik hur-hurreko euskararen. Gauzak kontatzerakoan pertsonalizatu egiten du, honek eta idazlearen subjektibotasunak interesa eta arreta erakartzen duela. Ikus daitekeenez, idazleak edo kazetariak konfidantzazko gidari edo autoritate bat balitz bezala jokatzeko du, egungo kolumnistek oso ondo dakitenez.

Gogoko du hizketa edo berriketa estiloa, dialogismoa, lagunarteko adierazpideekin, eta, batzuetan, alokutibo eta datibo etikoaren erabilera estilistikoarekin, irakurleekin burua bat egitearren. Adib.: "Eta orretarako aitzaten dau Jaungoikoa Kaiserrak? Tresna ederrik bajagok! / Belgika gixajoak zer eukan ba, Doitxerriak Pantzegaz darabillan auzian? Belgika bakebakean egoan, zegaitik bakean ez itxi, Jaungoikoak agintzen dauan lez? Pantzegaz daukok asarrea? Eldu eiok, or eure ondo-ondoan jagok eta" (GN 56). Datibo etikoaren adibide bat: "...doixtarrak burutsuak jatzuz ta asmau dautsue beste kirimilla bat, ara:..." (GN 185). Berriketa estiloa erabiltzen zuen ere Lizardik *Argia*-n 1928 ("Berriketak" saila, baserritarrei zuzendua, Txikiren marrazkiz apaindua. Ik. *Kazetari-lanak*, Erein, 1987, 75-98. or.). Berriketa-estiloko forma nagusi bat, elkarrizketa forma, dialogismoa, maiz darabil Kirikiñoek, baita gai politikoeetan ere, *Bizkaitarrak* hasita guttinez.

Ahoz-aho jasotako berriketa eta kontuak direla-eta, Kirikiñoek ahozko literatura eta historiaren bitarteko bezala jokatzeko du, ahozkotasun hori letraz jasotzen du eta letra munduan sartzen, irakurleko mota jakin batentzat eta gainera beronen munduaz idazten du, burua bat eginez irakurlearekin, gauzak beronen ikuspegitik eta mintzamoldez kontatuz.

Umorea dateke Kirikiñoen baliabide nagusia. Era askotako umorea: pertsonaia eta egoeren kontraste, hiperbole (neurritz kanpoko jokaera), ustekabeko ondorio, benetan / txantxetan bikotearekin jokatzeko, karrikatura eta konparazio ironiko edo barregarri, adierazpide bitxi, hitz-joku eta abarren bidezkoa. Kirikiñoen argudiobide nagusietarik bat farregarri uztea da. Bere betiko etsaiak irrigarri erabiltzea atsegin zuen eta atseginago irakurleek. Adibidez, alemanek Parise hartuko zutela jokatu bazkaria zela-eta, hauxe dio: "Onek karlistok beti oker (...) eneukez neure alde euki gura, galtzia eskijer (seguru) litzake ta" ("Paris-Irabazte-Bazkarija", *Euzk.*, IX-14).

"Astokraziakoak" bereziki irri egingarri dira. Adibide bat: "*Bilbao*. Mendigoizaleko mutil azkarrak atzo egin eben, eta ondo, Anbotora osterea. Mañari'tik bera etozala, bertako astokrazia'ko neska mizpirri batek esan eban birigarroena lakoxe mustur zorrotza oker-oker ipiñita: ¡Ton...te...rias! Automoliñes estando, andar de patas astokumes como si serían. ¡Oí, tzica, que ordinarios!" (*Euzk.*, 1914-VII-13).

Eta umorearekin lotuta, ironia eta destaina. Esate baterako, izen eta izendatzeko era ironikoetan erakusten duena: Prakerre ta Motrollo, Gezurruff, Patatenberg, von der Astarmann, "Batekotown'go izparringi entzute andiko The Gizurting Herald" (ik. eraskinean), El Pueblo Piperpote (*El Pueblo Vasco* egunkaria) e.a. Euskara mordoiloa ere destainaren iturri emankor bihurtzen du: karlatar zenbaitzuk (Urkixo, Zamarripa) farregarri erabiltzen ditu usu haien eus-

kara mordoiloa dela-eta. Azken honetaz, adib., zera dio: “Jakin daixun zelango *baskuentzista-terrible-tremendoa* dan berau, naiko ixango da esatia beronek sortu daubela euzkerazko itz barri bat “señora” erderazko “señora”tik” (*Euzk.*, 1914-VII-7). Ikusten denez, hizkuntzaren erabilera da umorearen iturri nagusietariko bat. Umorea da irakurleengan eragin handiena duen jarrera, irakurleei zuzentzeko era interesgarriena, kolumnismoan baliabide nagusienetako bat noiznahi.

Hizkuntzaz baliatzen ere maisua da Kirikiño. Aipatu dugu nola ahozko euskararen hurrekoa edo ahozko estiloa darabilen, irakurlearen, euskaldun jende arruntaren hitz, esapide eta mintzatzeko modua sartuz euskal kazetaritzan, halako joera egon baita gurean (Hiriart-Urruti e.a.). Hizkuntzaren erabilera asko laguntzen dio Kirikiñori irakurleekiko lokarriak sendotzen. Berriak ez ditu kontatzen informazio estilo formal batean, lagunarteko tonu eta mintzamoldeko hitz eta esapideak erabiliz baizik (maiz adiera figuratukoak). Izendatzeko era eufemistikoak ere bide horretatik doaz: “Maria-bideetako guztiak be uxatu ditue andik” –hots, gerra garaian gerraleku inguruetatik– (GN 96).

Hizkuntzaren adierazkortasuna bilatzean, belarriak eta begiak jotzen ditu, are gehiegi, kontatzen dena entzunaraziz: hots-hitz edo onomatopeia bidez (adib. “txor-txor-txor barriketant”), hitz joko, esapide ponderatibo (“An jabilk egurrotsa!”, A izan dok utsa!, GN 319, 325) edo enfasi bidez, bi hitz errepikatuz (adib. “aurrera ta aurrera”, GN 67). Eta batez ere ikusaraziz, konparazioen bidez, izadi konparazio, konparazio hiperboliko nahiz umoretsuen bidez. Hona hemen adibide batzuk: “Azkenerrako egia urtengo da azalera orioa uretan lez”, GN 99. Edo: “Esi orren (Joffre) aurka josten dabe astebebe onetan Kaiserran gudarriak, eta beti atzera duaz, itxasoko ugiñak edo olatubak apurtuta jausten diran lez bits-bits eginda atxakaz jokada andija eukita gero” (*Euzk.* 1914-X-30). Edo: erusitarrak “gudaritan daukatenak gure mendiyak iñurritan aña” omen (*Euzk.*, 1914-VIII-26).

Gainera, hizkuntzaren funtzio apelatiboa (interjekzioak, galdera erretorikoak, harridura, deiktikoak) eta konatiboa ustiatzen du (Agirre, aip. sarrera), irakurleekiko harremanak estutu, kontakizunetan batez ere. Errepikapena eta akumulazioa usu darabil. Eta esaerak ugari, eredugarritasun balioa dutelako (*Refranes y Sentencias*–eko (1599) zaharrak ere ez dira falta). Hala ere, Kirikiñoren estiloa bizkorra eta zalua, bizia da. Arintasun hori elkarriketa laburrek, esaldi bakun eta laburrek ematen diote (izenak eta aditzak nagusi, adjetibo gutxi), kazetari estiloari dagozkionak.

Kontalaria trebea dugu Kirikiño. Ipuinak-eta alde batera utzirik ere, kontaera forma oso garrantzitsua da haren kazetalarian, nahiz hauetan kontaera bezain garrantzitsua izan azalpena eta iritzia. Kontatuta gauzak gozatsuago hartzen dira eta horregatik egun ere adierazpen forma hori bultzatzen da kazetaritzan, EEBBetan adibidez. Ipuin, pasaizu eta kontakizunak, bestalde, iritzi edo ideien ilustrazio, etsenplu edota eredu izan ohi dira Kirikiñorentzat, eztabaidetan ere erabiltzen dituenak.

Eta kontatzerakoan idazle honek berehala sartzan gaitu istorian, narrazioa begietara ekartzen digu, orainaldia erabiliz (“Mutil azartua”, GN 94), ekintza bizkortuz aditzaren elipsiaren bidez, eta batez ere ekintza dramatizatuz, suspensea mantenduz (puntu etenen bidez e.a.) eta kolpea azkenerrako utziz. Egitura ere ondo finkatzen du (Agirre, aip. sarr.). Deskripzio-formari dagokionez, ipuinetan agian gehiago baliatzen den arren, kazetalarian ere giroa sujeritzeko edo kontatzeko baliagarri zaio (GN 97).

Kirikiñoren estiloaren ezaugarri nagusi batzuk egun ere balio dute: sail-idazleek edo kolumnistek badakite umorea, hizketa edo berriketa estiloa, konparazioak, adibideak edo pasaizuak kontatzea e.a. irakurleengan eragin handikoak direla.

Laburbil dezadan lau hitzetan orain arte esana: Kirikiño kazetari politikoa dugu, JEL eta euskara elkarri lotu eta zerbitzatu zituen, kazetagintzan kazetari eta idazle bezala diharduena, irakurgai atsegingarrien bidez euskal irakurleak erakarri eta idazleak sortarazi zituen, ahozko literaturaren bitartekaria eta kontalari umoretsua.

ERAKUSBURU BAT: I. MUNDU GERRAREN KONTAERA

Atal honetan Kirikiñoren gai-sail berezi bat aztertuko dugu, aurrean esandakoa kontutan hartuz: bereziki, haren pentsaera eta jokaera nola mamitzen den eta haren gerra kazetalanak zer-nolakoak diren.

Euzkadi egunerokoa elkartuen alde eta doixtarren aurka agertu zen. Horretarako arrazoi ekonomiko handiak zituen Bilbok eta kostaldeko ekonomiak, eta ideologikoak eta politikoak jeltzaleek. Frantzia eta Inglaterrarekiko salerosketa handia zegoen, itsasoz hein handi batez (burdina, ehun, jantzi, uhal, arma, abere, jangai eta abarretan, *Euzk.*, 1915-VI-2). Alemanek, jakina, gerratean salerosketa hori galerazi nahi izan zuten, ontziak apurtuz eta ondoratuz. Itsas merkatalgoa zen I. mundu gerratean Bilbo eta inguruaren ondasun-iturri nagusietariki bat. Merkatal interesen ikuspegiak, alemanen aldekoa izatea interes horien kontra zihoan. Gogora EAJ, EBB eta *Euzkadi* egunerokoan moderatuak nagusi zirela. Baziren, ordea, alemanen aldekoak alderdian (adibidez, eta diotenez, Luis Arana Goiri, 1915an EBBtik bota zutena), eta guerrari buruzko jokaera politiko desberdinek izango zuten beharbada zer ikusi alderdi barruko tirabirekin.

Gerrak, beraz, kezka handia sortu zuen (ik., adib., *Euzk.*, 1914-VIII-26). Jeltzaleek elkartuen aldea hartu zuten bezala, hemengo karlistek Alemaniaren alde agertu ziren. *Euzkadik* gerrari buruz informazio eta sail franko agertarazten zituen, egunerokoaren laurdena edo bostgarren parte askotan, gerrak egunerokoarentzat garrantzi handia zuelako ezaugarri: komentario luzeak sail finkoetan eta lehen orrian ("Comentarios a la guerra", "La guerra universal", "Gudalgai" eta "Baron von Goltz" ezizenez izenpetuak), "Crónica de París", azken berriak laburki, elkartuen komunikatu ofizialak e.a. Aipatu "Gudalgai" gaztea, *Euzkadiren* gerra kronikalaria izan zena Parisen gudako lehen urteetan, Manuel ("Imanol") Aznar Zubikarai nafarra zen, Jose Maria Aznar-en aitona hain zuzen, haren adiskide zen K. Enbeitaren bertso batzuek salatzen digutenez²³. "Gudalgai" kazetarikidearen kronika eta komentarioek Kirikiñorentzat informazio eta gogoeta sorburu garrantzitsu izango ziren seguraski.

Kirikiñok Europa eta munduko gerra-lerro, aire eta itsasoan gertatu joaldi, hiriburuetakotako giro eta abarren berri eta gogoeta anitz dakarzkigu, baita Bilbo inguruko itsasaldekoak. Interesgarria da, beraz, Kirikiño, gerrak kanpoan ez ezik hemen sortarazitako egoera kontatzen duelako, ikuspegi abertzale eta ekonomikotik begiratu eta elkartuen eta jeltzaleen politikaren alde jokatu. Nahiz eta hasieran guda ikuspegi moral eta gizatiarragotik begiratzen eta

23. Hona hemen bertso hauetako zatitxo batzuk: "Orra "Euzkadi"n nun agertu dan / Aznar-Imanol "Gudalgai". "Nik bai-nekijan nor zan Gudalgai / idazten asi zaneti; / ez esateko agindu eusten,...". "jaupa gora zeu, napar zintsuboi, / ez urten Jel'en bideti!" ("Gora "Imanol"! *Euzk.* 1916-V-23). Gerorago ere aipatzen du: "An Mayatzean gure lagun "Imanol" Parantzen ibilli zanian...". Laster joan omen zen Erdalerria (*Euzk.*, 1916-VII-17).

M. Aznar Zubikarai kazetaria, politikaria eta diplomatikoa izan zen. *Hermes*-en idatzi zuen eta Marokkoko gerrako kronikaria ere izan zen, ondoren *El Solen* zuzendari izanez. Errepublikar-kontserbadorea izan zen eta 1933an eskubitarrren hauteskunde-kanpaina zuzendu zuen, irabaziko zuena. 1936an altxatuen alde agertu zen eta gerra ostean Donostiako *Diario Vascoren* zuzendari izan zen. *Historia militar de la Guerra de España* (1940) idatzi zuen (*Enciclopedia General Ilustrada del Pais Vasco*, Añamendi). Bai laster Jel-en bidetik alde ere!

bakezale agertzen dela dirudien: “guda madarikatuba, guda inpernutarra” (*Euzk.*, 1914-VII-27), gazteria milioika elkar hiltzera daramana elkarri gorrorik izan gabe, gizadiaren atzerakuntza, laterrietako gudazaleek asmatua, elkar hartuta uko egitea merezi duena (*Euzk.* 1914-VIII-19).

Kirikiñorentzat Belgika eta Serbia herri txikien zapalketak alemanak zuzentasunaren eta gerra egiteko bide legezkoen aurka ari direla adierazten du. Belgika eta Serbia zinez begiko ditu: “gaixoa”, “errukarria” deitzen ditu bata eta bestea (“dohakabea” *Eskualduna*-n). Kalifikatibo finkoak, gauzak egonkor eta aldaezin bihurtu nahi dituzten horietakoak, gatazka eta gerratean erabili ohi direnak (artetik esan dezagun Kirikiñok Kroazia Serbiaren parte bezala ikusten zuela, erlijioan baino ez omen bereizten). Gainera Kirikiñorentzat elkartuak benetako gudariak dira eta alemanak, oster, gaizkileak: zuriak eta beltzak, esango bagenu bezala. Kirikiñok alemanen gerrazalekeria eta bereziki basatikeria salatzen du: itsasoan haien itxaspeko gerra-ontziek arerioen itsasontziak hondoratzean eta jendea itotzen uztean edo minak jartzean, nahiz zepelinek itsu-itsuan bonbak jaurtitzean, haur eta pertsona zaharren konturik eduki gabe. Gerra irudi nagusiak alemanen basatikerienak dira, irudi kontrast gisa noizean behin ingeles gerra-gizontasun edo zalduntasunaren erakusgarri direnak ere agertuz, adibidez von Richstoffs giza-eraren eta ingeles airezkiaren arteko burruka²³.

Hala ere, alemanen aurka baino gehiago aleman gidari edo aitzindari politikoan aurka ihardungo du, hauek asmatu dutelako gerra, gerrara doazen aleman mutilek gerrarik ez baitute nahi. Irudi hunkigarria da alemanak Iparraldeko euskaldun gerlariei abestiak gozoro entzuten ikustea eta ondoren elkarri tiroka ekitea (*Euzk.*, 1915-I-4). Gerra amaieran behintzat aleman gidari eta herriaren artean bereiztera jotzen du Kirikiñok: “Gora erriaren ala, ta bera gizon bakar edo gizon-aldra baten ala!” (*Euzk.*, 18-XI-16, GN 331). Ikusker a honetan demokraziaren ideien eragintxoren bat egon daiteke, agian.

Baina kazetariaren asmoa kanpoko gerra kontatzea edo kanpoko alemanen aurka ihardutea baino gehiago hemengo alemanzaleen (karlista, jaimista, eta are abertzale batzuen) aurka egitea da. Hain hurrekoak izanik, batzuk gerrazaleak eta arriskugarriak direlako edota beste batzuek euren jokaera zein kaltegarria den ulertzen ez dutelako. Karlsten arteko batzuk Espainiako estatuak gerran parte har zezan bultz egiten ari ziren: esaterako, Aita Baertel semolari frantziskotarrak “pikardija, lujua eta zikinkerija kentzeko” gerra ona zela predikatu omen zuen (*Euzk.* 1914-VIII-11). Kazetari gisa beraz gudu politiko-ideologikoa egin zuen Kirikiñok egunkariko etsaien kazeta eta kazetarien kontra: hots, *La Gaceta*, “Bilbao’n jaimatarrak dauken asteroko izparringi lotsagalduko iguingarrija”, alemanen aldeko gezurren asmatzaile eta zabaltzailea omen zenaren kontra. Baita, nola ez!, bertan idazten zuen Zamarripa “Zarrontzale” abade eta idazlearen aurka, destainaz eta bere euskara zela-eta farregarri erabiliz, ohi bezala. Espainiako gobernuaren politikari ere alemanekin duen eskuza-baltasuna aurpegiatzen dio.

23. “Osterreitx’en (Austria’n) gobernuko nagusija ixandako Czernin konde’ak argitaldu dau oraintsu bere “Gomutak” deritxon liburuba. (...) Czernin’ek diño ba, onetara edestu eutsola Richstoffs gastiak ingelar gaste bategaz bein ixan eban egaiz-burrukea: “Alkar ikusi genduan urrindik an goi-goyan eta asi giñian alkarregana urreratzen birata-biraka, era batez bijok geure parrapatan-izkillubekaz (ametralladorak) alkarri jaurtiten geuntsola. Bira-ta-bira, alkarren arpegijak naikua ondo ikusteko bestian urreratu giñanian, zoritxarra ixan neban, gelditu egin yatan neure parrapatan-izkilluba, ezin jaurtin. Orduban ingelar egaizkari gastiak be ixildu eban bere izkilluba, ta neugana begira-begira bira bat edo bi egin ebazan, eta igarri ebanian nik ezin nebala erabili neuria, eskua jaso ta agur egin eustan eta alde egin eban andik. Eninduban erail gura ixan, bera izkillubagaz ta ni ain barik gengoalako. Gauza asko baño gura-go neuke axe ingelarra ezautzia, ta neure eskarrak egiñaz batera berari esan antzifetako gixagurenak baño gurenagua dala bera” (“Gixaguren benetakuak”, *Euzk.*, 1919-X-30).

Kirikiño kazetariaren ikuspegi politikoaren azpian bilbotarren eta itsasaldeko euskaldunen sakela, hots, ekonomia dago. Gerra ekonomiaren ikuspegitik begiratu du, bere alderdiaren ikuspegiarekin bat eginez. Ontzi galtzeak denon kalterako direla diosku, ez ontzi-jabeentzako bakarrik.

Jeltzaileen politika eta ikuspegi ekonomikoaz gain, Kirikiñoaren ikuspegi abertzalea ere nabaria da alderdi guztietan: nahiz dela Belgika eta Serbiaren defentsan, nahiz dela ingeles abertzaletasunaren goresmenean, hauek gerrara "euren guraz" doazelako. Eta batez ere "Parantze'peko gure anayen aldez" –anaiak baitira "ziñestez, odolez, mintzoeraz" (*Euzk.* 1917-I-5)– elkartasuna aldarrikatzean eta antolatzean: gudamutilen egoera eta balentriak kontatuz, presoen berri emanez, zaurituen aldeko laguntza antolatuz (arropak, euskarazko irakurgaiak e.a.). Adibidez, J. Saint-Pierre "Anxuberro" eta J. Elissalde "Zerbitzari"k gerralekueatik bidalita *Eskualdunan* ateratako kronika pollit eta interesgarri franko bizkaieratuta argiratu ditu Kirikiñoak (idazle horiekin gutun bidezko harremanak izan bide zituen gainera). Etxeberr apaiz zuberotarrak euskaldun gudariez Bilbon emandako hitzaldian esanak ere agertarazten ditu izparringian. Berauetan, euskal gudarien balentriak kontatzerakoan, gerrako irudi bizi eta bortitzak agertzen dira (ik. adib. "Eskubonbak jaurtitzen euskaldunak nagusi", GN 290; "Euskaldun bakar batek amairu *boche* garbitu", GN 289). Kronika eta kontu hauek ikus daitezke GN 81, 109, 201-204, 283-292, 308. orrialdeetan. Iparraldeko anaien laguntza EAJren ardurapean antolatu zen (*Euzk.* 1914-IX-8). Abertzale baten ikuspegitik gudukatzea alferrekoa ez ote den galde lezakeenari, hauxe erantzuten dio Kirikiñoak: "Eta guda onetan euskaldunak aberri Euzkadiren alde ez badabiltz, beintzat aurka dabilz ludi guztia Prusiako gudari edo militar aldreaken ostikopean ipiñi gura dabenen aurka, Belgikaren alde ta Serbiaren alde. Alperrik ez dabilz ba" (*Euzk.*, 1918-I-19, GN 292).

Kirikiñoaren gerra kazetalanek irakurlea zerbitzatzea bilatzen dute, informazio iturriekiko kezka eta mesfidantza agertuz eta izpar laburrak eta gogoetak eskainiz, baita, noizean behin, bere barruan daraman kontalari umoretsua agertaraziz.

Kirikiño askotariko iturriez baliatu zen bere kazetalanetan: atzerriko izparringiak, batez ere Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniakoak (Kirikiñoak frantses eta ingelesetik itzultzen baititu kronika batzuk, ik. GN 30-32, 239), *Euzkadi* egunkariko aipatu kronika eta komentarioak, telegrafoko albiste eta komunikatu ofizialak, *Eskualduna* kazeta, lagunek bidali edo kontaturiko albisteak, kanpotik etorritakoekin hitz eginda edo berak hitzaldi edo prentsaurrekoetan jasoak e.a.. Informazio-iturriak zehazki aipatu ohi ditu hasieran baina, gerra egoeran, informazioa egiaztatzeko kezka bizia izan arren, iturriok esanikoa jasotzera mugatu behar ("ei", "diño" "itxura baten", "ez dakigu egi osoa", eta antzekoak errepikatzen dira etengabe), informazioa ziurtatzea ezinezkoa baita gehienetan eta zabaltzen diren berriak sineskaitzak baitira ("gezur-sasitza", "Gezurroff", "Patatenberg"...Ik. Eraskineko 1. testua Kirikiñoaren kezka eta umorearen erakusgarritzat).

"Izparrak" eta komentarioak ("gogaketak", zeresanak, azalpenak) dira kazetalan mota nagusiak, gehienak "Egunekua" sailean datozenak (EAEn noizean behin). Aipatua dugu izpar laburren garrantzia. Hona hemen eredu batzuk, GN liburutik jasoak, idazkera aldatuta beraz:

"Egunokaz dabil zurrumurrua izparringietan Italia laster asiko ete dan Alkartuen alde ta Osterreit-Doitxen aurka. Atzo arratsaldean esan zan eskier (*seguru*) dala sartzea urrengo datorren astean. Izango dana jakingo dogu." (*Euzk.*, 1915-IV-21, GN 124).

"*Aizean*. Egaizki-tramankuluekaz bitzuek alkarri kalte egiten dausie alegiñean. Zepellinak beti be joaten dira Ingalandara ta izkillubakoen ganera jaurtiten dabez bonbak, ume, emakume ta gizon baketsuak ilten dabezala. Auxe, nire eretxi txikian, gaiztakeria da." (id.).

Zeresan, gogoeta edo azalpenei dagokienez, berorien egitura deskribatu beharko bage-nu, hona hemen antzeko zerbait : lehenbizi berri edo informazioaren kontatera laburra; ondo- ren (+ azalpena / interpretazioa / eztabaida) + iritzia (+Argudioa, bat edo beste eta aldekoa / irakaspena edo “sermoia”) + etorkizunaren aipamena. Informazioaren kontatera gogoeta edo komentarioaren aurrean egitean kazetaritzako legea betetzen du. Hasierak eta bukaerak inte- resgarriak dira; izenburuak, ostera, testua irakurri gabe ez dira ulertzen. “Gogaketa” batzuk laburragoak dira beste batzuk baino (ik. adib. GN 63).

Komentario hauetan Kirikiñoren helburua ez da irakurleari pentsaraztea: eguneko berrien komentarioetan aurrez-aurreko erantzunak ematen ditu, argudio gutxi (kontrarioa farregarri uztea eta dilema dira argudio-forma erabilienetarikoa) eta kontrako argudiorik ez du eztabaidatzen, gogoeta luzerik ere ez du nahi. Baina halakoa zen lehenagoko kazetaritza, hemen eta kanpoan. Bere irakurlegoari egokitzea bilatzen du (gehiegi agian), kazetari estilo edota hizkeraren eredurik ia ez zeukan hizkuntza batean saiatur, batzuetan jarrera erasokor eta tonu gogorrean, beste batzuetan ironiaz, irri maltzurrez edo destainaz, askotan umore tanto batzuk ixuriz.

Bestenaz, aipatu kronika eta *Eskualduna*-tik bizkaieratuez gain, badira umore-artikulu eta kontakizun berezi samar batzuk, libreagoak, artikulismoari-edo dagozkionak (ik. Eraskinak).

ERASKINAK. Bi testu ezarriko ditugu, Kirikiñok berak argitaratu bezal-bezala, bere idazkeran. Lehena, “Gudako izparrak” (*Euzk.* 1914-10-24, GN 79-81). Bigarrena, “Europara begira” (*Euzk.*, 1915-1-7 Lotazillaren 17-23ko kontuak, GN 104-109. Honetan gertaera bene- takoa nahiz erdi asmatua izan, Kirikiñok ipuin moduko bat kontaktzen digu, guda biologikoa- ren pasaizu bat, ondo egituratua, bere aukezpen, ekintza eta irtenbidearekin.

1. Gudako izparrak (Egunekua, *Euzk.*, 1914-X-24)

Burruka gogorra darabilte Parante’ko iparraldian doistarrak eta alkartubak. Onak arei eutsin eta eutsin egiten dautsie; gixonezko esija ipiñi dautsie Belgika’ko itxasotik asi ta Zuitza’raño; esi auxe gogor eukiten ba’dabe, doistarrei aurrerantz egiten eragotzirik, ondo duaz. Doistarrentzat txarto dator gudeak irautia, bestiak baño txanpon gitxiago daukelako. Beste aldiari, Purrusi-Polon-Galitzia aldiari, iñok ezin ulertu lei zer dabillan.

Ara izparringi onetako euzkel-landolan egunero artzen diran onelakoxe izparrak:

Gezurroff–(Soka-bagako telegarrajotik). Errusitarren *Estado Mayorrak* diño:

“Apur-apur eginda itxi doguz doistarrak. Ankaz gora gelditu dira burruka-zelayan 18.931 gixon. Arrapau dautseguz 24.147 gixon bixirik, 63 kañoi, 29.757 puxil, eurotatik 7 gauza ezti- rala ta konpondu biarko diranak, 39 burdi, txirringak ausita bat, 2.500 zaldi, 300 mando, ta asto bat. Aurrian daruaguz 27 killometro ta erdiko bidian, biarrixantxu bat egiten gelditxeko astirik emon baga”.

Izpar au ikusita, bai-gagoz nasai-nasai beratzaz izketan: oinguan txarto dabiz andik Kaiser’an kapotepekuok, sartuko yakez errusitar gogor ayek Doitxerrija’ren bijotz-bijotzera. Ezta gero txantxia Gezurroff orretako guda-burruka ori. ¡Zenbat gixon ilda! ¡Zenbat arra- pauak! ¡Zenbat zaldi! ¡Zenbat...

¡Txip, txip, txask!...

Ara oska irirako telegarrajua. Bai-guaz arin-arin tramankulura, ta bai-darrgu urrengo izpar au:

Patatenberg.– (Irrako telegarrajotik bidalduta).–Ona emen doistarren *Estado Mayorrak* diñoa: Gezurruff inguruban errusitarrak sakatze bat egiten asi yakuzan, eta geuk oster a egin geuntsen atzera-sakatze bat, eta gurenda andija irabazi dogu. Illik eta zauriturik itxi ebezan errusitarrak zelayan 27.999 gixon, arrapau geutsezan 18.288 ukutu bakuak, 320 kañoi, 3.477 zaldi, 5 egazki tramankulu, 24 killometroko zabaleran eruan doguz anka-joku ikaragarrijan, buruko tximelak be botaten ebezala ariñago egitiarren. Euren keneralaren kapelia be emen daukogu”.

Orain, beste zeregiñik ezpa´daukozu, igarri egixu zeintzubek ixan diran gurendadunak, eta ¿zelan igarri, bata baño (bestia) guzurti andijagua(k) dira ta?

Orraitik, onetara ba´darrayo luzarotxu, telegarrajotramankuluok eratzu ta ganbarara eruango doguz ta kitu, gudea amaitzen danian jakingo dogu zefiek irabazi daun, guzurran-guzurraz atsituta gaukez ta. KIRIKIÑO

2. Europa'ra begira (Egunekua, *Euzk.* 1918-I-19).

Biotza ta zentzuna

Gudan dira biarrago

Izkillubak baño

Lotazilla 19, eguna baño len.

Urduri dabil batera ta bestera Von der Astartmann, doistar *keneral* sutsuba, bere guda-txabolaren aurrian. Esku bijak ipurdi-gañian alkartuta, okotza paparian sartuta, bere bibote erbi-bustanak lakoxiak diranak astin-astin dauzala, bekokijaren erdijan goitik bera tximur zakona daukola, begirakunia berantza...oldozketa andijan diñardu.

Otzaratchoff ixena daun menditxotik ezin dauz atara errustarrak. Amaika bidar, batian egunez bestian gabez, jua yake ganera Astartmann gogorra bere gudamutil erntsubakaz, ezin! beti atzera egin biar menditxuaren goiko zelaira igoteko dagon aldapan, berau biguna ixan arren; beti ernai ta gertu ta zurr idoroten dauz errustar zinduak. ¿Nok areri eskuba ezarri? ¿Ta ezarri biar! Kaiser'ak agindu dau ta ak agindu ezkeru...Otzaratchoff'eko goyuniak asko esan gura dau gudeari antz ona emoteko alde aretan.

Bai-dabil ibilli Astartmann bere garunak urtu biarrez oldoztiaren oldoztiz...Alako baten ¡dapa! egiten dau ikoti bat, eta didarr estutxua jaurtiten dau, kendu yako bekokiko tximurra, arteztu dau buruba, begirakunia argitu yako, txalo gogor bat joten dau.

Bai-datorkijo ondoko bat, eta oni dagintso urrutizkiñez esateko beriala *Estado Mayorr'* ari ingitxo baten berak emongo dautsona. Bai-damotso, ta ondoko ori bai-dua. Andik lastertxo bigurtzen da berau, ta taketa letxe gogor-gogor Astartmann'en aurrian jarrita diño: *Estado Mayorr'* ak diño etzidamuko emen ixango dala eskatu dozuna.

Erbi-bustanai astin-aldi bat esku bijekaz eraginda, “ondo yagok” darantzutso *keneralak*.

* * *

Lotazilla 19, gois-erdija.

Konstantinopoli'ko Ate Guren'an (Sublime Puerta) artu da urrutizkin-izparra. Berialaxe sumatzen dira tirrin-otsak, geznarrijan (mensajero) jua-eterri iradukorrek, sartu-urten eta zalaparta andija. ¿Zer ete da?

* * *

Lotazilla, 19, egubartea.

Konstantinopoli'tik ltxaso Baltz alderantz urtenda Bosporo ertzetan dagozan sasizetan atso pillo andi bat dabil urduri urduri arkakuxuak arrapetan, bai eurak aldian darabilezanak, eta bai euren artian ikusi daikezan txakur zar askorenak; jakiña da Konstantinopoli dala txakur-errija, ta beraz, arkakuxo-errija.

Ez uste arkakuxuok arrapau ta ¡klask! erpurubetako atzazkal artian lerr-eragiten dautsie-la, ez; tututxu luzenga batzubetan sartzen ditube bixirik, eta bete daitenian tutuba, ziri txiki bategaz ondo itxi, ta bertan burdi batzukaz dagozan Gobernuba'ren otseñeri emon.

Lana sendo egin dabe atsuok, eta arratsaldeko iruretako, arkakuxo burkada batzuk daroyez Ate Guren'era; andik geltokira, ta bultzi-burdi bitan (vagoe) sartu ditube tutu gusti-jok, eta laurak jota gerotxubago, tximistea lez durt (urteten da) bultzi edo trena Europa alde-rantz.

* * *

Lotazilla, 20, goizaldian.

Bulgari'ko Lon-Palanka deritxon urira eldu da bultzija, an arkakuxo zama ori urez Osterreitz'era bidaltzeko Danauba ibai anditik. Lon-Palanka'ko agintarijak ezbai dagoz zer egin ezta kijela zamaki onegaz, aurrera laga edo gelditu erazo, gudaz atako da Bulgari laterri-ja ta. "Estandakija baño gaizkarrijagua" diño zameak daruan azalgayak. Puska(ba)ten zalan-tzan egonda, erabagi dabe aurrera juaten istia, lagijak ezer ez diñoelako arkakuxoetzaz, baita bildur samar be bai-diralako zama ain gaizkarrija euren artian eukiten.

Bai-daroe ba arkakuxo-zamea gasmil-txanela andijetan Danauba gora Osterreitz alde-rantz.

* * *

Lotazilla 21, illuntzia.

Eldu da Otzaratchoff'era arkakuxo-bultzija. Eguberdi-ostian eldu dira iru edo lau bultzi batan-bedarr usaintsuz bete-beterik, Danauba-aldeko errekaetoetan batu ta ekarrita; zabaldu ditube eurok doistarren lubagi gustijetan.

Gautu ta gero, errustarren aldera jaurtiten ditube tuturik erdijak, idigita; urteten dira arka-kuxuak gosez amurratuta, asten dira jaikika (saltoka) ikaragarriro, ta gustijak artzen dabe bidia errustarrakana, doistarren aldean sumetan dabelako batan-usain zorrotza.

Eltzen dira errustar gixajoekana ta eltzen dautsie onei. ¡Zer ixan zan an, Jaungoiko laztana! Iñok ezin izan eban, arterik artu gau gustijan; lo egin barik eta larriro ikusi eben gudamutillok egunaren zabalztzia. Doistarrak, oztera, ederto lo eginda bizkor-bizkor egozan. Von der Astarmann'ek agindu eban abijada bat egiteko arerijokana, baña ez goyune a artzeko, errustarrai atsedena galerazoteko baño. Egun gustijan ekin eutsien gogortxo.

Gaba eldu danian, enparau tutubak jaurti dabez.

* * *

Lotazilla, 23, goiza.

Egun au argitu zanian, errustarrak ezetako be etziran gauza; indarge, aul, loguraz ta gosez jausteko asko biar ezebela aurkitxen ziran gixajuak, egun bijan lo barik egonaz ganera, jateko astirik ez gurarik ezeben ixan, beti azka ta azka.

Orduban Astarrmann bere gudamutillkaz sartu yaken su ta gar aldapan gora, ta txiriki-llan betu ebazan, eta artu eban Otzaratchoff'eko mendigana.

Beriala bidaldu eutson Kaiser'i gezna bat: "Bedorren Aunditasuna'k agindu eban lez, Otzaratchoff'eko goya geuria da. Goyune au artuko eben gudarijenzat abindutako Burriñezko Gurutza, Konstantinopoli'ko atsoen eta txakurren arkakuxo azkarrak irabazi dabe".

* * *

Otzaratchoff-irabazkundiaren edesti au ezta gero emen asmau dogun guzurra. Edesti ori euzkeraldu dogu Batekotown'go izparringi entzute andiko *The Gizurting Herald* deritxonetik. Beronegana jo ba, patatia dala uste badozube. Guk euzkeraldu dogu ta argitaldu, egi-antz andija daukolako.

* * *

Euzkeraz irakurten kilikolo dabilztanen batzuk ixan leitekez ta eurakaitik daminguz emen itz-azalben onek: Ondoko, esan gura dogu *ayudantia*; Iradu, *priesa*, ta beraz, iradukor *presuroso*; Egubarte, egunaren erdi-aldija, orr amaiketarik ordu bata arte inguru; Tutu, *kañutu*; zama, *karga*; Gudaz-atako, *guerran neutrala*; Laterri, *Estado*; Estandaki, *explosivo*; Gaizkarri, *peligroso*; Lubagi, *trinchera*; Gezna, *mensaje*; Edesti, *historija*. KIRIKIÑO.

BIBLIOGRAFIA

(Argitalpenak)

Abarrak (Abando, 1918).—Klasikoak, 1986 (I. Lakak prestatua, hitzaurrearekin).

Bigarrengo Abarrak (Amorebieta, Jaungoiko Zale, 1930).—Klasikoak, 49, 1991 (A. Beola-I. Muñoa-k prestatua., hitzaurrearekin). Bilduma osoena: *Bustintza'tar Ebaristo "Kirikiño" Abarrak* (Abarrak, Bigarren Abarrak, Eta Abar -Euskera, Jakingarriak, Bertsoak eta Izkirimiriak, Albistak), 1966, A. Onaindiaren bilduma eta hitzaurrea. Kirikiñoren idazkera aldatuta dakar.

Egunekoa, Labayru Ikastegia, Sutondoan sorta, 1981 (X. Perea-ren aukerapena eta hitzaur., J. M. Agirre-ren aurkezlana eta moldakuntza).

Edo geuk edo iñok ez euskerearen alde, Labayru Ikastegia, Sutondoan sorta, 1984 (X. Perea-ren aukerapena eta hitzaur., A. Arejita eta X. Perea-ren moldakuntza).

Guda Nagusia, 1914-1918, Labayru Ikastegia, Sutondoan sorta, 1989 (X. Perea-k prestatua, hitzaurrearekin).

(Ikaslanak)

Etxebarria, I., *Ebaristo Bustintza Lasuen "Kirikiño" (1866-1929)*, Euskal Hitz, Eusko Jaurilaritza, 1992.

Ik. aipatu edizioetako sarrerek.